

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XXXVI Zenbakia.

1996

Uztaila-Iraila

AURKIBIDEA

Orr.

Esaldi Jatorrak.— Oñatibia tar M. (Barruko azalean)	
Erdiaroko Euskal-izenen idazkera.— Latiegi'tar Bixente	1
Intza'tar Alta Damaso'ren itzaurrea ez argitaratua	9
Bixente Latiegi Goimallako euskeraren langillea.— Latxaga	19
Bizkaiera eta Gipuzkoerazko aditza.— Puxana'tar Pedro	24
Ainbat erriren eta izkuntzen suntsipena.— Egigain	40
Justo Garate'ren ondarea.— Osintxu	42
Zankamehe.— Junes Casenave	44
Uso Zuria.— Albisu'tar Anastasio	49
Kukulla'ko aizeak.— Imanol Mujika - Paulin Solozabal	60
Aita Santí Onaindia.— Omenaldía	64
Esaldí Jatorrak.— Oñatibia'tar Manu (Kanpo eta barruko azaletan)	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

OÑATIBIA'TAR MANU'K JASOTAKO ESALDI JATORRAK

— Alakoren AITZEARIK BAI AL DEZU?

— Ez da BEREALAKOAN BUKATZEN.
* * *

Illeta batean:

— Zure aita aspalditik ezagutzen nuan, baña ez nekian zure AITA ZANIK.

— Bei asko al dituzute?

— **Beiñekorik GEYEN; UME! EGIÑDAKOAK** ogeitamar ba-ditugu BEIN-
TZAT ETA...

* * *

Bizarra-kentzen ari dala:

— Tresna ori garestia al da?

— **NAIKO GARESTIA;** amaika milla pezta **ORDAINDUA** NAIZ.

— Zer eguraldi degu gaur?

— Eguzki **ITXURARIK EZ BEINTZAT.**
* * *

Jubilatuta alkarrekin bizi diran iru senide ondo **AZALTZEN DIRALA**-ta, batek
ala galdetzen dio:

— Ondo bizi zeratela **AGIRIAN DAGO!**

— Orixe! Irurak **IRABAZIAN GAUDE BEINTZAT** ETA

UNEIA = BEIZAYA.

— Beyak lepoan **GARE** (cencerro) ederrak dituzte.

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA



I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao



ERDIAROKO EUSKAL-IZENEN IDAZKERA (II ATALA) BALPUESTA'KO GOTZAIADIAREN LARRUKIAK (IX MENDEA)

804'EKO IDAZKI BAT (IV)

Vallis Composita edo Valpuesta'ko gotzaitegiaren larrukiak ikertzen ari gera. Kronologiari dagokion eran, ots, denboren araura, aurreneko larrukiak asi gera: (804'an II Alfontso Asturietako Errege erdi-euskaldunak gotzaigo ura sortzerakoan idatzierazi zuanetik:

Auek dira larruki ortan Erregeak aipatzen dituan toki-izenak:

ORRUNDIA
SUVANARIA
LOSA CIELLA
PENNA
PENNILLA
RIANTA

CAMBRIANA
CANCELLATA
CHARSECEDO
VILLAM LUMNOS
RODIL
OVETO
CASTELLI

VALDEGOBIA
VALLEIO
PONTACER
BUSTO
FRESNO
ORON

Eta auek dira, guk, azkeneko saioan, beren baiezeko edo ezezeko euskalduntasuna agertuz, azterturik utzi genituanak: Orrundia, Vallejo, Penna, Penilla, Fresno, Losa Ciella, Cancellata.

Jo dezagun aurrera gaur, aztertzeke dauzkagunetatik batzuk beintzat ikusiz.

LOSA CIELLA FORMAL da Erregearen larrukian irakurtzen dana: "...in loco quem vocitant Losa Ciella Formal", bait diosku larruki ortan II Alfontso'k, eta mintzaera orren zergaitia billatzen saiatu bearke dugu. Zer ote da FORMAL? Ez Cangius'ek²³, ez Maria Moliner'ek²⁴ ez digute argitasunik emango. Ezta

²³ "Glossarium Mediae et Infimae Latinitatis coditum a Carolo Dufresne Domino du CANGE". Paris 1844.

²⁴ "Diccionario Medieval Español desde las Glosas Emilianenses y Silenses hasta el S. XV", Universidad Pontificia de Salamanca. 1986.

Apaizgaitegi gazteiztarreko liburutegian aurkitzen diran beste lztegi ugariak ere, Martin Alosorenak izan ezik²⁵. Baiñan onek diona ere ez zaigu laguntza aundiegia gertatuko. "Formal", Asturietan, "coto de viñedos" dala esaten bait digu. ¿Orrelako zerbait ote zan ba gure larruki ontako "formal" ura?

- Larrukia idatzierazi zuana, Asturietako Erregea zan: II Alfontso. Eta ala izango zan idatzi zuana ere: Asturietatik Erregearekin etorritako lumalariren bat. Elizgizona, eskierki.

- Mastjak berriz ugari ziran antziña Araba'ko lur garaietan.

Bañan:

- Larrukian "formal" ez da izen soilla bezala agertzen, izen-laguntzaille edo adjetibo bezala baizik.

- Martin Alonso'k damaigun "formal" ura, naiz Asturietan sortua, gaztele-razko itza da, eta aski gaurkoa.

- Larrukian datorrena ordea, askoz eta askoz zarragoa da. Eta latiñezkoa!, latiñez idatzitako larruki batean datorren ezkerro.

- Laterazko iztegiek, ordea, — ez latera klasikoari-buruzkoek ez erdiaroko-ari-buruzkoek —, itz orri ez diote orrelako zentzurik ematen. Ezta gure arazoa askatzeko balio lezaigukean beste inolako zentzurik ere.

Ez dakigu beraz larrukiko "formal" ori zer arraio izan daitekean.

¿Ez ote da euskerazko itza?. ¿Ez ote da, geroago larruki zar auek lardaska-tu zituzten berr-idazle ugari aietako batek edo bestek erdal-itxuratutako itz euskalduna? IX mendean, zer beste demontre izan zitekean ba?

Naiz Asturietako errege, euskalduna bait zan gaiñera II Alfontso Muña Bas-koiairen semea.

"...in loco quem vocitant Losa Ciella Formal" idatzi zuan Erregeak.

CIELLA ori ¿zer ote da?. Badakit, irakurle adiskideok, badakit zuetako askok zer erantzungo didazuten:

- Ori motel, Erregearekin Asturietatik etorritako lumalari ark gaizki idatzitako itz bat besterik ez dek. "Losa"ri erantsita idatzirik egon bear lukeana: LOSA-CIELLA, euskeraz LOSATXO. Atziki ttipigaillu bat besterik ez bait dek. Seguruaski, Losa aran zabalean izango uan Losatxo edo LOSA TXIKI izen zerama-kiken bastartxoren bat.

- Bai, irakurle maiteok, bai: "ciella", "iella", "ella", "ela", "illa", "illo", atziki ttipigailluak dira; ez, ordea, laterarenak, erromantzeenak baizik.

Orrek, ordea, beste arazo kilikagarri bat sortzen digu: ¿Nondik jaso ote du Gaztela'ko erromantzeak gaurko gazteleran bizirik diraun "illo", "illa" atzizkia? Eta ¿nondik Naparroa'ko-ta-Aragoi'koak, beti atsegiñagoa izan zaion "iko" eta "ika" atziki politta? Euskeratik ote?

Ez dezagun aztu bi erromantze oiek Euskalerrian jaiok dirala! Baita Katalauni'koa ere. Ango idazle batek esana bait da "katalauniarrek latera ikasi gabe egin zutela euskeratik erromantzerako jauzia"²⁶.

²⁵ "Enciclopedia del Idioma. Diccionario Histórico y Moderno de la Lengua Española". Madrid, 1958.

Landetako, Bearno'ko eta Bigorre ta Auñamendiaren iparraldeko beste erromantzeen berririk ez dut, baiñan aiek ere euskeraz egiten zan lurretan jaiok dirala bai, badakit. Erromantze oiek ere egoaldekoen atziki oien antzekorik baduten, eta atziki oiek euskeratik artuak ote dituzten edo ez..., ori..., irakule, ori ez dakit. Orregaitik, pozik uzten diot eskuetan korapillo orren askape-na, Zubero'ko Casenave adiskide jakintsuari.

SUVANARIA: Iturri baten izena da: "... de Orruntia usque ad fontem Suvanariam. Et de fonte Suvanaria usque ad molares": "Orrundi'tik Subanari iturri-raiño eta Subanari iturritik arritzarretaraiño"; "molares, latiñez, "arri aundiari" esaten bait zitzaion.

Suvanaria berriz, naiz "sub" ori "v" idatzirik agertu, itz bikoitza ederki izan daiteke: "sub"- "anaria", ots, "anari"- "pea". Orrela ba'litz, "ANARIA" zer izan daitekean jakiten egongo litzake kokka. Ez da laterazko itza. "Anaria", bai: baiñan ez digu gure ekintza ontarako balio. "Urtekoa" esan nai bait du!

Euskerazko itza, bai; ziurki izan daiteke "Anaria" euskerazko itza! Euskerazkoa bait da AÑARIA orren antz aundia duan ANANIA, Matauko'ko alor baten izena.

Eta badira Araba'n "ANA"z asten diran toki-izen geiago: "Anabar" Aramaio-na'ko errota bat; "Anabidea", 1708'an, Arbulo'ko soro bat; "Anagarea", 1749'an, Kontrasta'ko larre bat; "Analamendi", Laminoria'ko mendia; "Anaperra", 1749'an Kontrasta'ko soro baten izena, eta "Anapari" 1664'ean Berne-do'n beste soro batena; "Anata", Arana'ko Donebixente'n alor batena; baserri batena, berriz, Unzella'n "Anatitxena".

ANARI bera, abizen euskalduna omen da Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco" k dionez. Eta, Lopez Mendizabal'ek damaion etimologia egiazkoa ba'litz, "Iarredia" esan naiko luke, "gaztelera"z "pasto" ornen da ba euskerazko "ANA" ori.

Ta, badaiteke nere erritar eta adiskide ark ora;ngoan arrazoi izatea. Naiz, iztegiatan izen ori agertu ez, ANABASA eta ANABAZKA, Bizkai'n, Azkue'k dionez "forraje que se les da a los animales" bait da: "belarki-bazka".

Ortaz, Il Alfontso'k aipatzen zuan Autrigoni'ko "SUB-ANARIA" ark, eta gaur Araba'ko Legutiano'n dagoan "LARRA-BEA" k esannai bat bereko izenak izango litzukete.

Larruki auetan agertzen diran izenak, Araba'koekin kidatzen ditut maizenik, larrukiek aipatzen dituzten izenen lurraldeak muga Araba'rekin egiten zualako, baiñan ezin utzi dezaket aantzirik, SUBANARIA'ren itxura ber-bereko izen bat badala Laburdi'n: ANABEHERE, laburdieraren idazkeraz. Baita ANABE bat ere!

"Anagoiti" ("por encima del pastizal), "Anagoitia" ("la parte alta del pastizal), "Anabitarte" (entre el pastizal), "Anabea" ("la parte baja del pastizal")... euskal-abizenak ditugu.

- Larrukiko "SUBANARIA"ren "SUB" ori laterazko aurrizki bat duzu. Lateraz idazten ari zalako, agian lenengo lumalariak berak, euskerazko "BE" edo "BA"ren ordezi ipiñi zuana. Bearbada toki aren izena euskeraz, AÑABE, edo ANABA, edo ANAPE izango bait zan.

- "RIA" daruma larrukian Subanariak atzizki. "RI" eta "DI", atzizki bat bera dira; ugaritasun-adierazlea. Bizkai-aldean geiago erabiltzen dute "RI" ("piñeri", adibidez). Guk, ordea, "DI" atsegiñagoa gertatzen zaigu ("piñedi").

VILLAM LUMNOS, "cum suis directis": "Billa Lumnos bere eskubideekin". Itz orrek, — "directis" orrek —, ori adierazi nai digula ematen bait du. Ez du beintzat "bere lurraldeekin" ("cum suis terminis") esan nai; bi itzak ederki bereizten bait ditu Erregeak lenxeago LOSA'ren berri ematerakoan: "Losa ... cum suis terminis et directis"

VILLA" itzak emen, ezpairik gabe, "erri aundixamar" bat adierazi nai du.

LUMNOS, ez da latera. Ez da euskera, — idatzirik dagoan bezala beintzat —; baiñan izan zitekean agian euskera, lenen lumalariak idatzi zuan bezala, "LUM" aurrizkia lez daramaten toki-izenak Araba'n gaur ere badiran ezkeru: "Lumbaeta", Badaya mendiarren maldan; "Lunbeta" (Lumbeeta), andik urruti ez dagoan Martioda'n; Lunbarriaga", Salmanton'en; "Luminaren", Mendijurr'en"; "Lunpia" (Lum-pi-a), Kontrasta'n.

Gaur, "Villalumnos"en antzarik aundieneko erriak, Villaluenga biak izango lirake. Bi oietako bat "Rivera Alta" esaten zaion udalean dago, 011abarre eta Antezana izeneko errien artean. Bestea, orain Burgos'koa dan Losa Aranean, Araba'ko Gobiaran'ekin muga egiñez ain zuzen. Baiñan toki berean egotea izan ezik, ez dut uste larrukiko "LUMNOS"ek bi erri oien LUENGA rekin zerrikusi aundirik baduanik. Zerbaitekin izatekotan Kuartango'ko "LUNA"rekin eta Gernika-gaiñeko LUNO'rekin duala esango nuke nik; Luno'ri, gaiñera, erriak LUMO esaten bait dio.

"O" atzizki toki ta ugaritasun adierazlea dalako, Lumo, "LUM" asko dagoan tokia dugu.

Baiñan "LUM" zer dan jakin gabe jarraitzen dugu. Ea, zuk, irakurle, argi ematen diguzun!

CHARSEXCEDO: "De Reianta usque ad S. Mariam subtus carrera usque ad Valleio de fonte Charcesedo": "Reianta'tik gurdibidepeko Santa Mari'raiño (eta) Karsecedo'ko iturriraiño".

"TXAR" aurrizkiz asten diran toki-izenak Araba'n ugari ditugu, baiñan "TXA" ori, ongi ezaguna dan TXAGORRITXO'n bezala, "etxe, -Araba'n "etxa" —, itzaren laburpena izan oi da.

¿ETXARTSECEDO ote zan ba larrukiko erri aren izena? Ez noski! Laterazko "CH" ori, "TX" ez baiña "K" irakurri bear bait da. Era ortan KARTSEZEDO biurtzen zaigu izen ori; eta ori da lumalariak idatzi nai izan zuana: Kartsezedo, edo agian ziurrago: Kartzezedo. Izen euskalduna ote? Bai, nere iritziz, naiz, bearbada, ongi idatzia egon ez.

"KAR" aurretik daramaten izenak baditu gaur ere euskerak bi ta iru baiño geiago. Ezagutuenak, Naparroa'ko KARKAR eta KARKASTILLO erri biak eta Bizkai'ko KARRANTZA²⁷. Baiña baita eun da larogei ta amar ere (190!) Araba'n bakarrik, Gereñu'ko Loperenak erakusten digunez28.

Orra ba adiskide: Ezin izango dizut gure larrukiko CHARSECEDO ori zer izan daitekean. Mendeak zear lumalari ez berdiñen berr-izdazketetan itxura galdutako, edo lenen idatzaldian bertan aurren-lumalariak oker idatzitako izen bat ote dugu? Seguruaski atzerritarra bait zan lumalari ura: Asturietatik errege-arekin etorria.

²⁷ Izen oien sorta berekoa dugu, gaur Fraantzi'ren ego-sortaldean aurkitzen dan KARKASONA ere; erromatekoan euskera iristen bait zan Mediterran edo Lurrarte-Itxasoaren ertzaraiño. Antxe zegoan ainzuzen, itxaso aren ondoan, ILIBERRI izeneko uria. Eusko-lurralde zar ura, ordea, gure larrukiak aipatzen dituan errien lurraldetik urruti zegoan; eta gure larrukiaren denboran, IX mendean, naiz oraindik, bearbada, landa, baso, ta mendietan euskerak bizirik jarraitu, beraiek ere odolez oraindik euskotarrak ziran urietako biztanleek azturik zeukaten agian beren izkuntza zar ura, naiz bost mendez geroago, XIV mendean, Karkasona baño aundiagoa ta bizkorragoa zan Ueska'ko uriaren azokan jendeak euskeraz itsegin. Ori, 1349'an Ueska'ko Udalak emandako agindu baten bidez eskier dakigun gauza da. ¿Zer izkuntzaz mintzatzen ote ziran Karkasona, Geron, eta beste uri aietako biztanleak IX mendean? Noizbait -azturik daukat noiz -irakurria bait diot kataluniar bati- ez naiz oroitzen nori-, "katalauniarrek latiñarik ikasi gabe egin zute-la euskeratik erromantzerako jauzia". Erromantzeentzat mende txit goiztarra da ba IX mendea.

²⁸ Gerardo López de Guereñu Galarraga: "Toponimia Alavesa". Euskaltzaindia, 1989.

¿Ura esterara zan bezain seguruaski zala euskalduna II Alfontso erregea?
¿Eta onek ez zuala oker idatzitako izenik zeramakian dokumentu bat onartu-ko?

Orduango errege aiek, irakurle, borrokara ta eizarako izaten ziran eziak. Oso motz gelditzen ziran kulturazko gaietan, kulturari zegokiokean oro elizgizonen eskuetan uzten zutelako. Naikoa izan oi zan aientzat dokumentuen amaieran gurutze bat marraztuta gurutzearen alboan beren sellua era ulertezean ipintzea.

REIANTA: Oraintxe ikusi dugun lez, "Reianta'tik Kartzesedo'ko ibartxorako bidea aipatu digu Moña euskaldunaren seme Erregeak. Zer ote dugu ba Reianta? Au ere oker idatzita iritxi zaigun itza ote da?

Oker ibilli neikealako bildur aundiz, onela ebakiko nuke nik izen ori: REI-ANTA.

"Anta"z asten diran toki-izenak errez aurki daitezke Araba guzian: "Antazina" adibidez Kanpetzu'ko Santakruz'en; "Antarriedo" Santakruz'en bertan eta "Antariedo" 1706'ean gure Errioxa'ko Lapuebla de la Barka'ko alor bat; "Antategi", Trespuentes (erromatarren "Trasponete") erromatar beraiek eraiki zuten Iruña'ko "oppidum" edo "gudaritegiaren" albo-alboan.

"Antategi": "Tegi" zer dan badakigu. "ANTA", ordea, ¿zer ote?

Zer izan daitekean ez dakit ziur baiñan itz euskalduna dala bai. Kerexeta'ren ustez, "ANDA" ornen da jatorriz itz ori. Baleike. Gaur, ANDA bera, larrukiak jorrazten duan lurrean, ots, Autrigoni'n, erri baten izena da. Eta, Kerexeta'k berak dioskunez, Bilbao'n, abizen euskalduna. "Anda"z asten zaizkigun toki-ta-abizenak Euzkadi osoan ia, aurkitu daitezke.

"Euskal-itza baldin ba'da, Anda orrek zer esan nai duan? Ez dakit. Lopez Mendizabal'en ustez, "LARRE". Ori, ordea, egia ote?

"Auntzak, beti, larrera jo", dio antziñatiko esaera zar batek. Auntzaren anzeko izaki noski, bere azkeneko urteetan adiskide maite izan nuan gizon onuragarri ura: Lopez Mendizabal'dar Isaka. Berak ere, etimologigintzan asten zanean, larrera jotzen bait zuan beti. Oraingo ontan ere, ez dakit nondik aterea duan "anda" "pasto" dalako ori.

Ez dakit, ezta, "Reianta"ren "REI" ori zer izan daitekean.

¿Agian zuk bai, irakurle?

PONTACER: "Tribuo ertiam in loco qui vocatur Pontacer Ecclesias Sanctorum Cosmae et Damiani, et Sancti Stephani, et S. Cypriani, et S. Johannis, et Sanctorum Petri et Pauli, et S. Caprasi cum suis hereditatibus de Penna usque ad flumen de Oron". "Badamaizkiot baitare, Pontacer izen-duan tokian, Kosme ta Damian Doneen, eta Eztebe Donearen, eta Ziprian, Jon, Kepa ta Paul, eta Kaprasio Doneen elizak, beren ondasun eta lurralde guztiekin Aitzetik Oron ibaieraiño".

PONTACER len ere azertuak gera, Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetzarako larruki bederatzimendetarrek aztertzerakoan, naiz an itxuraz aldatuxea agertu: PONTECERCI, 853'ko dokumentu batean, eta "PONTECERCI" 864'eko beste batean. Geroago, PONTACRE esango zaio

"Pontacer" "Pontecerci", edo "Pontacre"? Erridi aren egiazko izena ¿zer ote zan? Auskalol29

" Arrazoi dezu irakurle: "Auskalo, erdelkeri bat besterik ez da: Gaztelerazko "a buscarlo"ren laburketa. Baiñan ain dago txukunki laburtua!, ain dago zearo tankeraz aldatua!, ain dotore

Danadala, ez da erri baten izena lurralde batena baizik, beregan ainbeste eliz, — eta eliz aiña errikoak —, sei aizuzen, izateak adierazten digunez. Ibero ibaiaren egoan, Miranda'tik bertan, Oron esaten zaion ibaiaren alboan zegoan.

Euskalduna?

Larrukian datorren lez izen bikoiztatua da, erdi-latiñ-erdi-euskera; euskalduna dala uste bait dut daraman atzizkia: "AZER"; "ACRE": atzizki bat bakarra, era bitan idatzia. Bigarren era, aurrenekoaren aldakuntza, aurrenekoari erdal-itxura emateko asmatua. "Acre" erromantzearen itz ezaguna dan bezala, "Azer"ek ez bait du erromantzean zentzurik.

Ta, "Ponteceri"? Au ere "Pontacer"i mendeak geroago egindako aldaketa dala iduritzen zait, erromantze-itxura geiago bait du "ponte"k "pont" utsak baiño, eta baita "acer"ek baiño geiago "cerci"k ere, itz onek erromantzeko "cerco" gogoraazten dualako.

"AZER" atzizkia bera, ordea, ¿euskalduna izan daiteke? Ona, beintzat, itz ori sustrai duten Araba'ko toki-izenak:

AZERO, adibidez. Iturri baten izena. ¿Izen ori erdalduna dala?. Ez. Dagoan tokian dagoalako, — Gorbeia-Mendian aizuzen — itz orrek, ots, "AZE"- "RO"k, ez du gaztelerazko "acero"rekin zer ikusirik³⁰

Ona enbor ori bera duten beste toki-izen arabar batzuk:

AZETXALDE, 1707'an Gorbeia-maldako Zarate'n alor baten izena zan: eta orrela da gaur ere.

AZEDUIA, Gazteiz'tik urbilleko Abetxuko'n, beste alor bat dugu.

AZEIBAR, Murgi'n, gaur, eta 1707'an, soro baten izena.

AZENDUIA, Entzi-Mendi'ren gaiñean, beste alor baten izena.

AZERE. Izen zarra, Araba'ren iparreko Artomaña'n 1625'teko dokumentu batean toki-izen lez agertzen zaiguna.

AZEROBALLESTA. Au ere Araba'ren iparrean, Gorbeiapeko Zigoiti Aranean, atzo-atzo c`ie euskeraz egiten zan lurraldean, baso baten izena.

AZEROGANA, Gorbeia-mendiko baztar bati esan oi zaio.

"AZE"ren etimologiaz galde egiten ba'didazu, zer izan daitekean ez dakidala erantzungo dizut.

Oraingoan ez du Ixaka nere adiskideak larrera jotzen, baiñan ez da larretik urruti gelditzen; "aze", "aza"ren aldakuntza, "sasia" dala esaten bait du. Arra-zoiz? Ez dakit. Ez bait du — oiturazkoa duan len lez —, ori nondik artu duan esaten.

Ameskeri utsa besterik ez da, irakurle, orain esatera nijoakizuna, eta ez zaiozu geiagoko baliorik eman, baiña PONTAZER ez ote dugu PONTATZE"?

Gaur bertako Araba'n, Autrigoitarrena izandako lurtean, euskeraz eta erromantzez bikoiztatutako erri-izenik badugu: PUENTELARRA, Ibero ibaiaren ondoan. Bestalde, "Pontace" motelari oartzeke "R" bat erantsiz izen ori, Pontace, Asturietatik etorritako lumalari ark "Pontacer" biurtu izatea, ez litzake arritzeko gauza izango.

euskal-itxura politaz jantzia!, eta, ain errezki da euskaldunen artean erabillia-ta..., bere burua guretar egin duan inmigrante edo etorkiñari zor zaion eraspene berberaz onartuko nuke nik gure elertiko euskeran ere esakizun ori.

³⁰ Agian, itz ori, obeki erabakirik onela: "AZE"- "R"- "O", seguruaski "r" ori izki doiñu-gozagaillu bat besterik ez bait da, "o" toki-adierazlearen eta bere aurreko "e"ren artean igarobidea leguntzearen sartua.

Eskiertasun aundiz diodala, larruki au idatzi zuan lumalari ura, II Alfontso Erregearekin Asturietatik etorritakoren bat izan zala?

Badut ziorik aski orrela pentsatzeko: larruki ontako idazkeraren dotoretasuna ainzuzen. Orduan emen idazten ziran dokumentu guztietakoa baiño askoz txukunagoa da larruki ontan agertzen zaigun latera. Autrigoitarren semeen artean ez zan orrelako "latinistarik". Naitanaiez Erregearen Jauregiko idazle bat izan bear zuan gure lumalari zar arek.

Puentelarrá'tik ez ain urruti, gaurko Burgos'en dago beste izen bikoiztatu bat: PANCORVO.

Erri orri dokumentu zarrek PONTECORVO esaten diote. Lurralde ura, IX mendean Araba'rena zan. Eta Araba'n bazan, gaur ezabaturik dagoan OKERRURI izeneko erri bat. ¿Garai artan arabarra zan eta lateraz "Pontecorvo" esaten zitzaion erri ari ¿OKERZUBI esaten ote zitzaion euskeraz? Nork jakin!

Eta, ¿Okerruri eta Okerzubi oien etimologia, gazteleraz "Ciudadtorcida" eta "Puentetorcido" ote da? Ez dut uste. Orrela izatekotan beren izenak URIOKER eta ZUBIOKER izango bait lirake.

Nere iritziz, "oker" oiek, "aker" ederki izan daitezke, eta, era ortaz, AKERRURI badakizu zer izango litzakean. Esan dezagun bildurrik gabe: CIUDAD DE CABRONES, Euskalerrian ez bait zuan aker gizagaixoak espainiarrek leporatu dioten zentzu gaiztorik. Gaiñera, uri ura zegoan tokia, dana baso ta dana mendi, akerdegi izateko berdiñik gabeko lurralde egokia izango ba ote litzake gaur bertan, Araba'ko Agintaritzak auntsazkoen aziketa galeratzi ez ba'lu.

Eta, aker-tokiz aker-toki, OKERRURI'rentzat eman dedan etimologi orrek, balio lezake, bearbada, PONTECORVO'rentzat ere, naiko aker-larre bait dira iguru aietan akaitz etá ámildegietako saiak; baiñan bai batarentzat eta bai bes-tearentzat egiaz belio duan..., ori ez dakit.*

Beste iñoiz ez dut agian egokitasunik izango-ta, zillegi bezait OKERRURI erritxo ezabatuaz solasalditxo labur bat:

Araba'ko zokorik menderaturik menditsuenean, eta garaienetako ta polite-netako batean zegoan, oraingo Sabando errixkaren alboan. An bada IKURRIALDE esaten zaion toki bat. Izen ori Okerruri'ren aldakuntza ote dugu?

Dokumentuei dagokienez, XI mendean Kukulla'ko burni-barren larrukiak, 1025'garren urtean, OKERHURI esaten dion.

Eme, irakurle!!! Esan bait dugu bein baiño geiagotan, antziñate artan lumalari zar aiek "H" a karta-jokuetan "komodiña" erabilli oi dan bezala erabiltzen zutela..., orra ba or "H" bat "komodiñ baten lana egiten. Or, "R" baten lana: "okerHuri"="okerRuri".

Geroago, XV (1426) eta XVI mendeetan (1503), Gereñu'ko Loperena'tar Jerardo'k dioskunez Okerruri esaten zaio, eta baita XVIII mendeko idazki batean ere.

Azkeneko ortan ordea, beste itz bat darama atzetik erantsia: OKERRURI-KERESTUIA.

Ez-zait zailla iduritzen itxuraz ain traketsa dirudian izen orren etimologia, KERESTUI izeneko baserri bat Aramaiona'an badugun ezkerro.

"ETA" ta"TUI", esannai bereko atzizkiak dirala badakigu. Beraz, bildurrik gabe oles-egin dezakegu, "KERESTUI" eta "KEREXETA" ere esannai bereko izenak dirala: gazteleraz, "cerezal".

"A" atzizkia txertatzen ba'diogu, "Kerestui-a", "el cerezal" biurtuko zaigu eta OKERRURI-KERESTUI-A, "el cerezal de Okerruri"

Badut, alatagutziz, nere baitan kezkatxo bat. Egia da gerezi-lur ezin ohea dala Okerruri zegoan tokia, agronom'injinieru adiskide batek esan didanez, baiñan, "kerexa" Sarkaldeko Euskeraren itza da, Karistiarren eta Autrigoitarren itza. Okerruri ordea, Barduloeak eta Baskoiek muga egiten zuten tokian. Eta bai aiek eta bai auek, kerexari "gerezi" esan oi diote.

805'ko larruki onen bidez, Pontatzer'en zeuden 6 eliz aipatzen dizkigu Erregeak, eliz oiek eskeñiak zeuden Doneen izenak emanez. Mende-erdi bat geroago Kukulla'ko larruki biek — 853'an batak eta 864'ean besteak —, 4 elizen izenak damaizkigute, eta ez digute Erregearen Done oietatik bat bakarrik aipatzen. Beste batzuk dira aurkezten dizkiguten Doneak.

Ezberditasun orrek sortu dezakean arazotxo, Larruki ontako donedi edo santoralaz mintzatzerakoan aztertuko dugu.

ORON eta PENNA (irakurkeraz PEÑA) aipatu dizkigu atal ortan Erregeak. Laterazko "penna" euskeraz "aitza" da. Lenen izki nagusiz dakar larrukiak: "Penná", agian. bere inguruari izen-ematen zion Aitz bereiziren bat zalako.

ORON ibaiaz, berriz, Kukulla'ko larrukietan Pontacre aztertzerakoan mintzatu giñan.

"Oro" enbortzat duten izenetatik. zuk gutxienez iru ezaguko dituzu, irakurle: Orozko, Bizkai'n, eta Naparroa'n Oronoz eta karlisten gudatekoan ospetsu egin zitzaugun Orokieta.

Badira geiago ere. Asko. Araba'n bakarrik, 14.

Gaiñera, "ORU" daramaten izenik geienek ere "ORU" ori "ORO"ren aldakuntza dute. Berdin esan daiteke "OR" aurrizkiz asten diran askori-buruz ere.

"Oro", "Muño" dala esan oi dute. Askotan ordea "oro" esaten zaien tokiak ez dira muñoak. Orregaitik, egokiago derizkiot "ORO — "oka" eta "ara", eta beste orrelakoren batzuk bezala — euskeraren izen zarrenetakoa dirala, eta bere esannaia galdua dugula apal-apal aitortzea

CASTELLI: "Gazteluarena". Genitibu edo noren-eran dator. Ez du Gaztele-riarekin zer ikusirik. IX mendearen asiera artan ez bait genuan oraindik euskaldun inoxenteok Gaztela'ko Konterria sortu. Itz ori II Alfontso'ren izkeran, ez da erri edo lurraldr baten izena, zerga batena baizik.

Gotzaigo berria eta gotzaigo ari emandako erri, eliz, eta ondasun goztiak, eta etorkizunean irabazi zezazkeanak, zerga orotik yaretzen dituala esaten bait dio angó lenen gotzaia izanen zan Jon'i etsiera onen ondorengoei.

Larruki ortan bertan beste lerro batean "Kastelaria" (sic) izen-damaio zerga baiño geiago bearturiko lana zala ematen -duan zerbait ari: "de labore Caste-III", "gazteluren aldeko lanetik yare", eta "Kastelaria" edo "gazteluarenganako" orotik yare izango dirala bait dio"

Zana zala II Alfontso Muña'ren seme Erregeak aipatzen digun "kastelaria", IX mendean Araba'ko Gobiaran'en Gaztelu bat agertzeak arozo miña sortzen digu Euskalerriko edestiaren aldetik.

Ortaz, ordea, "EUSKERAZAINZA"ren urrengo zenbakian mintzatuko gera.

LATIEGI'TAR BIXENTE



INTZA'R AITA DAMASO'REN ITZAURREA EZ ARGITARATUA

LATXAGA'REN OARRA

1976'garren urtean, "JAKA'RA OÑEZ NAPARROA'N ZEAR" delako nere liburua agertzen zen. Liburua argitaratu aurretik, itzaurrea INTZA'R AITA DAMASO'RI eskatu nion egiteko. Ontzaz adu zuen. Itzaurre luze luzea egin zidan, luzegia nere ustez. Laburpen bat bakarrik argitaratu nuen.

Gaur ogei urte geroago, bidezkoa, egokia ta zuzen deritzait itzaurre ori osorik, Aita Damaso'k egin zuen bezala argitaratzea. Gaurkotasunik ez du galdu. Naparroa'ren maitasunez osatua dago. Euskara amets, atsegiña ta itxaropena, arnas ta gogoia. Naparroa'n Euskalerria dakus. Errietako berri anitz ematen dizkigu, datozten gizaldietan bertatik balara maiz aipatuak izango direnak.

Idazki onekin Aita Damaso'ri berea ematen diogu, ongi irabazia... Eskerrikasko.

ITZAURREA

Emen dugu berriro Latxaga jauna. Ementxe dugu orain iru urte "Naparroa Euskal Arrobi" liburu bikaña eman ziguna.

Geroztik ez da lo egon. Gaur eskutaratzen digun liburuak bere ibillaldi bat azaltzen digu. Zortzi eguneko ibillaldia. Ibillaldi latza, zail eta alde askotatik arriskutsua. Aste batez, egunik galdu gabe, daokala egiña. Nondik nora ordea? Gipuzkoa'ko Orexatik, Jaka Aragoi'rañokoa Nola gero! Ez zozokerian, "aidea burun eta ibilli mundun" dabiltzanen antzean. Azken ibiliz ta bidenabarean bideko ta inguruetakoz guzia kontuan artuz.

Berak aurretik nondik-norako bide-karta egin zuan. Eta egun bakoitzean, eta asmatutako tokiraño iritxi ziran, izerdi ederrik aterarik. Baiña laister joatea bakarrik ez zuan billatzen gure bidariak. Zebiltzan toki bakoitzetan euskal-kulturarako zerbait onuragarri ba'da arkatza (lapitza) dantzatzen du. Euskara ta Euskalerria aberastu ta edertzen duan gauzarik, ez da bildu gabe utzi nai.

Berau Orexa'ko erretore lau urtez izan dan ezkerok, orko berriak ematen dizkigu Naparrokoakin asi baiño len. Orexa'ren izenetik asita jarri dizkigu erri ortan izan diran bertako apaiz eta gizon ospetsu batzuen berri asko. Balta berak eta beste askok erri ortan edan duten euskeraren eta euskaltasunaren oitura ta aurrerapide ederrak.

NAPARROA'RA BIDEAN

Orren ibilketa luze ta nekagarriari zergatik eldu ote zion? Apuztuz? Ala esango du norbaitek. Deus ere olakorik. Egia, bel, Latxaga berak esaten digunez, ibilleran asi baiño len, apusturako bezela egin zuan. Lizarraga'ko esaera zarrak dio-ta: "Probintzikoak apustua egin baño lenago ateratzen dik izerdia". Artarako, Oresa'tik Gorriti arteko mendiak barrena, bein-da-berriz egiten zituan bere nekaldiak, eta gauez alare.

Oraingoan Naparroa aldez-aIde igaro nai bai zuan. Eta ez Naparroa bakarririk, Aragoiko alderdirik menditsuena era bai, Jaka bereraño.

Naparroa'ko Euskal Arobia" noraiño irixten zan leen, eta noraiño iristen dan gaurkoan. Ori ongi ikusi ta erakutsi egin nai zigun.

Ibillaldi ontan igaro ditu Larraun, Basaburua, Ulzama, Anue, Esteribar, Erroi-bar, Artzibar, Aezkoa, Saraitu ta Erronkari ibarrak. Baiña bere ibillaldian ez die begiratu geienik dabilten ibarretako alderdiei. Bidenabarrean euskal arnasea ta bizitasuna nolakoa izan dan eta gaurkoan zertan dagoan begiratu du.

Alde guztietan lendabizi ango elizel, baselizei eta monastegiei begiraten die. Ez ordea ataritik edo kanpotik. Baita barrendik ere. Ikasi ala, esanez dijoakigu zer garaietakoak, gizalditakoak diran, zer gisetakoak, erromaniko, gotiko edo bien tarteko ala gerogokoak diran. Eliz Batzuen sarrera edo alderik obere-nak zein dituan, elizetako pontarria, gurutze edo irudiak, aldaretako ol margoztatuak, zer garaisutakoak. Batzuetan nork egiñak izan diran, eliz, dorre ta irudiak, ere bai, zenbait aldiz.

Zenbait erritan ango gaztelu, jauregi ta etxe zaar gotikoak eta azaltzen dizkigu beren ate, ate-gañetan, leio ta zuretan dituen edergarriekin.

ZIZA-BILTZALE ERNEA

Ziza-biltzale erne baten antzeko egiten zait Latxaga. Ari etzaio ziza-larre bat ikusi gabe gelditzen, dabillen tokietan. Nork-nai dakizkian larretakoak ez baiño, maldetan, mendi, sasi eta malkar eta malkor tartetakoak billatzen ditu. Eta iñork uste etzuan tokietan betetzen du bere pardela, zizarik ederrenez.

Berauxe agiten du, lengo ta oraingo ibilleretan Latxagak, liburu ontan ageri danez.

Alde guztietan ikasten du errirako bidean arkitzen diran mendi-tontor bakoitzen izena, kontuan artzen digú erriaren zein aldetan, ipar edo egoaldek, ezker edo eskuiñ aldetik dagoan. Ortze duzu beren goratasuna ere. Ubalde ibairik ba da, ortxe arkituko dugu bere izena.

Erri bakoitzak dauzkan baso, oanetako aberastasunak edo ango urritasuna oartzen ditu. Baldin ba'da lantegien bat, lankidetzta (kooperatiba) edo langintza onuragarririk.

EUSKAL-KULTURAREN ESNARAZLEAK

Naparroa'ko arrobi ontan batez ere oiek arkitu nai ditu Latxaga'k. Azkarate'n Martin Jose Belardi aipatzen digu, erriaren onerako fundazio bat egin zuana. Uztegi'n, Aita Sebastian Mendiburu ospetsuaren oroigarria. 1.764'garren urtean Jesus'en Biotza'ren Billera jarri zuanarena. Arribe'n Martin Gaintza, erri-

ko dorrea egin zuana eta Deba'ko Martin Pikabea, Lesaka, guda-gizonarekin batera, biak aurreratu zuelako eliza berritzeko dirua. Betelu'n, Pedro Lezaeta, Peru, Amerikako gobernadore izana. Eta orain Uriña (mantekilla) egiteko Lantegia. Bereontan errirako ta Araitz'eko Ikastola. Gorriti'n Errirako dadukaten "Lankidetza". Lekunberri'n, Ikastola, naiko duten aur guzientzat. Urte batzuetan egin duten Euskal-jai aundia, beren abesti ta dantzakin.

Arrobi ontan Latxaga'k arkitu du zerbait geixago poztu gaitzazkena. Latxaga'k dakarkigun guztiaren ikuspegia. Zer ote da? Euskal kultura goratzeko beren jakintzaz, lumaz edo idazkiz, eresi musikaz, abotsaz eta kantuz, mintzal-diz eta irakasketaz lan egin dutenak.

Jarri ditzagun aztu gabe txistulariak, ondoan datoz abeslariak, urrena bersolariak, laxterkari korrikalariak. Oietakoak edozein ibarretan agertzen dizkigu. Bakanxago badare uztargille, etxagille dorren eta eliz-gilleak. Azken aldera maixu ta frantzitarren garaille diran, alde guztietako euskaldun gudariak, Naparroa'ko erregekin. Non ala?

Orrega'n, Erronkari'n, antziñako Napar-lur Aragoi'ko Jaka'n, Berdun'dik Leire artean, "San Juan'en" Arkaitza'n eta Xaldua'n (Zaragoza) Naparroen eliz arrigarriarekin.

Latxaga ibilli dan ibar eta errietan euskera bizi al da?

Araitz ibarrean euskara zertan da? Uztegi'n eta Atallo'n aurrak ez darabilte euskararik; erderaz erantzuten dote. Ikastola ba'dago txikientzat Betelu'n. Baiña bereortan Ikastetxe aundi'ra dijoaz Araitz osoko aur guziak. Orko Irakasleak guztia erderaz erakusten ba'dute, aur guztiak ez al dira euskara era bat galdu-ta aterako? Naita-naiez, gurasoak ez ba'dira gogor jartzen euskarari eusteko.

Larraun'en, Lekunberri'n badago Ikastola aur txikientzat. Baiña or ere Larraun'go mutiko ta neskato guziak Ikastetxe aundi, or jarri dutenera biltzen dituzte. Lekunberriarrak beti erdaraz ari dira. Orkoak beste edozein erritakoa-kalako bi ba-dira, ta Ikastetxean erderaz erakuste ba'zaie, zer itzegingo dute Larraun'go aurrak?

Gañerakoan Larraun'en euskara bizi da erri guzietan.

Imotz'en Etxaleku, Oskoz Goldaraz, Zarrantz eta Muzkitz'en bizi da, oieta-ko apezai eskerrak. Basaburu'n, Beruete, Arraras eta Igoa'n txiki ta aundietan bizi da; beste errietan gazte geienak ba'dakie, erdaraz ari dira baiño.

Ultzama'n, Erdara sartu da era bat erri geinetan; euskara Auza'n eta Urrizola'n mintzatuko dute geienik. Auza'n orain 20 urte guziak zekien.

Anue'n Olague'tik alde, erri geinetan 50 urtetik gorakoak jakingo dute noski. Lanz'en Gauza bera.

Esteribar'en, Ikastola Zubiri'n orain, Bide berritik bazter dauden errietan 50 urtetakoak, euskara ba'dakite, erdaraz ari dira baiño.

Erroibar'en ez zuten oartzeko betarik izan; baiño Mezkitz'en, Aurizperrin (Espinal) eta Auritz'en euskal-giro zerbait ba'da ta euskara ederki dakienak ez gutxi. Baño erdara nagusitua dago.

Artzibar'en erdara besterik ez darabilte; zarrenen batzuek jakingo baiño lenago an ibilli zanean bildu zuan, len mutillek kantatzen zuten Arrietan: "Lilia ikusi dut

baratza batian,
ez du galtzen negian
gehiago nahi nuke
nere saetsian".

Ipuitxo au ere antxe bildu zuan. Elur ta elur ari zan negu batean, Meza ematen ari zan apezak, "Dominus vobiscum" esatera itzultzean, berriz elurra ari zula ikusita esan zuala: Aurten ez da geldituko buztanik ere". Aezkoa'n Garralda'n gazteen artean euskal zaletasuna berritzen ari da. Ariben etxetan euskaraz egiten ornen dute. Aezkoa'n aizea aldatzen ari da euskeraren alde. An bildu dizkigu "Umeen Deia" liburuan argitara emandako berso batzuek, aldaketa zenbait dakartenak.

Artzibar'tik Aezkoa'rakoan Irizkuren'dik Ekiza Jauregi'ra sartu ziran. Jauregian euskaldunak bizi dira. Guzien pozaldia! Latxaga'k antxe bildu dizkigu erri ari buruzko esaera auek: Ekiza'n ateratzen da eguzkia, Arizkuren'en illargia, Uli goikoa'n izarrak eta Azparren'en aberastasuna". Eta beste au: Azparren paraisoa, Ekiza bigarren zerua, Uli goikoa, purgatorioa ta Arizkuren Inperua".

Aezkoa'tik Saraitsu'ra sartzean, Eaurta'n (Jaurrietan), era bat erdaraz ari dirala ikusi zuten, baiña apaizak, txistulariak sortuz eta euskal-dantzak ere erakutsiz, euskal bizia berritzeko gogotan.

Urbillengo erria, Otsagi (otxagabia). Emengoa zan Etxandi ipar Euskalerriko abeslari onenetakoa, bere "Otsagabia" mingarriarekin. Negargarria Otsagi'n gertatua; euskal-arnasa erabat galtzen utzia bai-zegoan. Orain Ikastola. "Naparroa arrotzturikan" dio Etxamendi'k.". Baiña ez beza kantatu oraindik. "Baiñan primaberarik Naparroan ez eldu". Latxaga jaunak onera irixtean, badiudi bere ta gure biotza poztu nai digula itz auetaz:

"Urbil zaitez Iruña'ra, begiak zabalik ikus, eunka aur ikastoletara, millaka txistulari gazte, dantzariak multzoka. Naparroa'ko agintariak bere gain ikastolak artzen dituztela; artzen, indartzen, zuzpertzzen. Berreun biztanleko erriak ba'ditugu beren ikastolakin"... "Ba dakit beste aldetik Diputazioa ta Eliza Otsagi'ko euskara berpiztu naian dabiltzala. Ezin dut aztu Luiz Canbra'ren alaba "Pilartxo" nola etorri zitzaigun Orexa'ra euskara ikastera, oso aste gutxitan ikasi zuan eta etxera euskaraz mintzatzen itzuli zan". "Erriko etxeko gela batean iriki dute ikastola; Etxaleku'ko Maria Jose Moreno irakasle bezela asi da".

Espartza'tik barrena igaro ziran Erronkarirakoan. Oartu gabe erri ontan ere euskal-zaletasun pixkat ba'dela. Orain iru urte or bildu nituan egun batez 30 esaera zar, lau gizonen artean. Elizan, euskaraz jarri dute noiz egiña ta berritua izan zan.

Izalzu'ko Gartxot bersolari, Kanpion'ek ain ederki ipuiatz aipatua gogorazten digu ta erri ortan noiz goratuko ote zaion oroitarrien bat. Saraitsu'n ere euskeraren udaberria argituko al zaigu ba! "Otsagi ta Espartza dira Saraitsun euskara geiena egiten diran tokiak" esaten digu Latxaga'k.

Saraitzu'ren beko aldean dauden erri txikietako bat Nabaskotze dugu. Emen jaioa da Naparroako Aldundiaren (Diputaduen) Buru, Amadeo Marko jauna. Emen ezin dugu, ordea ixildu berri pozgarri au. Onak bere lagunekin, orain iru urte aitortu zigun: "Euskara, Naparroa'ren altxorra dala" eta Aldundi (diputazioak) alegin guzia egingo duala euskerari eusteko, sendortu ta zabalitzeko.

Saraitzu berekoa dugu oraindik or azkana aipatzen digun IGAL erria. Zizabiltzale antzeko Latxaga jaunak, erri ontako eta beste batzuetako Monastegiaz diona, bi itzetan aipatu gabe ezin utzi. IX garren gizaldian, San Eulogio Naparroan egindako garaia. Bai ornen zan emen Monastegi bat. Ikusten dugunez, Euskalerrian, bazter izkutu auetan, artzaiak bizi ziran inguruetan, ematen dizkigu monastegi batzuen izenak. "Urdaspel, Erronkari'n, San Zakarias Zilbeti'n, Leire, denetan aundiena, jakintza aundiko lekaidekin".

"ERRONKARI izen aundiko ibar" era Akanparea izena duan mendi lepotik sartu ziran Latxaga ta Mikel bere laguna. Zer arkitu ote dezakete, ordea, euskara berpizteko lagundu dezakenik, jakiña ba' da Isaba'n il zala Erronkari'ko azkeneko amandre euskalduna? Bidangotz'en sartu ziran. Eta ona, non ematen digun erri ortako seme ospetsu Mariano Mendigatxa'k Resurrekzion Maria Azkue jaunari egindako eskutitz bat, Faustino Zerio'k Euskara, aldizkarian argitaratara emana.

Biramon goizean Erronkari errira joan ziran Gayarre, abeslari ospetsuaren sorterrira ta aren illobia ikustera. Emen dakarkigu berriz Gayarre'k bere•izeba Juana'ri euskaraz 1884'ean egin zion eskutitzxo bat.

Garde'ra bidean Eska ibai ubaldea igarotzean, garai bateko ALMADIA'z gogoratu da. Irunberri'n Lumbier ondoan oien oroipenerako egin zan jai eder batez itzegiten digu. Uztarroztik edo Isabati'k atera ta zazpi-zortzi egunez Zaragoza'raño eta Tortosa'raño zeramazkien Almadiak gogoratu.

Garde'ra irixtean origarri ugari datozkio burura, gure ibiltariari. Euskal-guda edozeinen biotzean piztu lezakienak dirata.

Aurrena, Garde abizen duan Apaiz ospetsu, Marzelino Garde jauna. Ori Ustarrotz'en eta Garde berean bizpiru urtez egon bait zan erretore. Zaragazte-lu (Carcastillo)ko semea. Gaztetandik maite zuan euskara. Ta bere maite-miña Erronkari loratu zitzaion. Orra, 1954 garren urtean egin zuan olerki bat "Erronkari'ko txoriñoa" dakarra. Erronkari'ko euskararen alare. Or, Araba'n eta azkenik Iruñan euskararen alde egin dituan lanen batzuen berriak damazkigu. 1973'ean "Principe de Viana" izeneko euskal aldizkingiaren arduraduna izendatu zuten. "Orain or debil Foruen Diputazioan, jo ta ke, euskararen alde... Naparroa'ri bi gauza oso-osorik gorde ta eskuratu nai dizkio, alde bate-tik kristau siñismena, beste aldetik euskal nortasuna... Oratarako biderik egokiena euskara zabaltzea dala konturatu da" dio.

ERRONKARI'N BESTE ZERBAIT

Gure bidariak goiko bidetik Gardera jeixtean ikusi zuten "Arri aundi baten gañean Pedro Naparraren irudia. (Onek) bi izen zitun, Pedro bereterra ere deitzen bai zuten. 15 ete 16 garren gizaldikoa (da), Garde'ko seme ospetsua". Egitazko gizona genuan, benetan azkarra ta napar zintzoa. Italian guda-mutil bezela ibilli ondorean Naparro'ra etorrita buruzagi ta gizon au erregearen alde burrukan ibilli zan. Juan eta Katarina Labrit'en besoa ta babesaren genuan. Guda galduta etsaiaren eskuetan erori zan eta Karlos V garrenak espetxean sartu zuan Simancas'ko gazteluan il zuten. Naparraren askatasunagatik eta Naparroa'ren erregeak alduntzeagatik bizia kendu zioten. Gizon indartsu ta napar ziñezko onek merezi zuan bere sorterrian oroitarria... Gure oroi ta ospe biziz orrelako gizonen". Garai artako Naparroaren egun negargarriaz dion guztia, liburu berean irakurri.

Latxaga'k Garde berean arkitu zituan bi xos'ez diona ere aipagarri du. Garai illun eta goibel artan Naparroan gertatutakoa zillarezko bi puxketetan agiri zan. Urte aietan Naparroan gertatutako aldaketaren gogoragari dira. Bata Naparroa'ko erregeen garaiekoa da. Alderdi batean bi izki ederrak ditu I K, Naparroa'ko errege Juan eta Katalina emaztearena. Katalina, bera zan Naparroa'ko alaba, Juan senarra Frantzi'ko lurralde aundi baten nagusia, biyek Naparroa'ko errege, Iruña'n koroiatuak. Bi izkien gañean koroi eder bat ipiña

dago armarririk gabe. Beste aldean berriz gurutzea bakarrik. "Naparroako Xosaren zillarra ez da aberatsa... jakiña Naparroa erdibitua zabillen" eta.

"Beste xosa berriz Fernando, Kastilla ta Aragoi'ko erregeak egin du, 1512 garren urtean Iruña eskuratu ondoren" Ortaz Latxaga'dion guzia obe duzu liburuan irakurri. Azkenean dio: "Ara bi xos txiki oietan zenbat irakurri diteken eta zenbat esan nai diguten". Eta geroxago: "Garde'n dagon Pedro Nabarro'ren iduri aurrean asko asmatu bearra dago... Naparroa berriz letxe senide tarteko borroka naikoa dau... Siñismena eta euskal-arnasa izan bear luketa egitazko naparrentzat, etorkizun jatorrari eusteko urratsak".

ARAGOIRAKO BIDEAN GURE BIDARIAK

Esan genezaieke noski: Naparroa'ko Arrobia ez al da, ba, or arkitzen? Baiña Latxaga'k erantzuten digu: "atzean Naparroa uzten genuan, gure aurrean berriz Aragoi. Bi aldetan lur berdiñak, mendiak antz aundikoak, gizonak berriz anaiak, Enda berdiña dala ezin ukatu; Euskal-erria artzai-erria. Atze ta aurrean mendi saillak ikusten genituan. Ura itxura daukana Auñamendik! Oso goien giñan, 1.171 metro".

Zer billatu zezakean, ba, emen? Arixtian esan diguna egiztatu nai digu. Naparroa'ri ta Euskalerrri osoari erakutsi, Naparroaren, Napar-erregeen lurak noraiñokoak ziran, Naparro osoa euskalduna zan garaian.

Nondik-nora egiztatu ote dezaiguke ori? Aurrena, dabillen tokietako, mendietako ta etxetako izenetaz. Anso'ra jetxi ziran eta bere artan etxe sail baten izenak: Txortxi, Zuriza, Guarrinza, Ezkaurri, Berdoloki, Idoia, Txarradas "Euskal izen asko dago emen". Len bai ornen zuten "Alakai" izena zuan dantza bat. Anso'tik bi kilometrora ba ornen zan "Atxar de Ormat" izena zuan erri bat. Beste bat Santa Engrazia'ko mendi bizkarrean Oronos izena zuana. "Arrigibela berria Zuriza'ko sarreran. Borda batzuen izenak Txikin, Tximena, Artxibu. Au mendi tartean. "Mallo de Azpetra" deitzen dan tokiraiño Anso'koa. Ansotarra "Berez ateratzen zaie —dio Latxaga'k— esatea, euskaldun sena daukatela beren nortasunaren oñarrizat". Jorge Puyo, 75 urteko artzai ta idazleak esan ornen zion: "Gazteago izan ba nintz pozik euskara ikasiko nuke". Euskara zer dan ez dakite, baiñan euskal sustraiak oraindik ugari arkitzen dira gizon oien artean. Enda bat iltzen zeinen zailla dan ortxen ikusten degu, baita euskal iza-keran nolako indarra daukan".

Anso'ko egonaldiaz idatzi ditun orrialde luzeak liburu berean irakurri bear dira. Or ikasi zuan ainbeste abizen euskaldun ba-dituztela. 21 bat sendi edo familik Mendiara abizena dutenak. Gero Gorria, Gurria eta beste batzuek.

Anso'tik Etxo deritzan errirakoan "Lekaime ta Lekaide" izenarekin ezagutzeri dituen bi arkaitz luzeen ondotik igaro ziran. Zelaitxo batean "Txurdana" (1) izeneko iturria. Errira irixtean sendakiñagana joan ziran, Latxaga jauna, oñak larrutu'rik zebillelako. Espadradapoak olioakin nola kendu esanik, arrotzetxeaz galdetu zuten eta Gabi izena zuen etxe batera bidali. Gabi izeneko etxe, gure Kabi izan liteken ontan oñetako zauriak garbitu ta ur epelean gozaturik biramonean errira ikusten asita, uste ez zezakena arkitu zuan. Eroririk dagoan etxeko orma, bakarra ageri zan tente, eta goiko aldean arriak iduriakin. "Urbildu nintzan ta irudi oiek bi LAUBURU, oso ondo egiñak. Ez nuan uste ETXO'n bi Lauburua arkitu bear nituala".

(1) Madoz, Larraungoan, Txurdenea da ango etxe baten izena.

Erriaren eskubi aldean Garai izeneko mendi aundiak. Etxo'ren atzeko aldean SIRESA izeneko erria. Naparroa'ko Ziriza dakar gogora. 852 garren urtean Cordoba'tik etorri zan emengo lekaideak ikustera, eta liburutegi ederra arkitu ornen zuan.

NAPARROA'KO ERREGEN EGINTZAK ASTEN ZAIZKIGU

Santxo Garzes Iruña'ko erregak 922 garren urte inguruan Berdun erri'tik asita Leire'n azpiraiñoko erresumaren mugak, mairuen aurka sendotu zuan eta Elizari bizi aundia eman zion". esaten digu. Azkenean Siresa'ko monastegia Iruña'ko erregearen eskutara etorri zan ezkontzaren bidez. Andregoto, Garzia I Santxez'en emaztea, Aragoiko buruzagiaren alaba zalako. Santxo II-garren Garzes Iruña'ko erregeak Siresa'ko monastegiari beste erri bat eman zion, Javierremartes izenekoa. "1077'garren urtean Siresa'ko eliza Agustindar Kalonjeen mende gelditu zan eta erregearen babesean".

"Ementxe (Etxo'n) azi ta ezi zan Aragoi ta Naparroa'ko erregea Alfonso Burrukalaria, gizon azkarra ta siñismen aundikoa (1104-1134). Mairuen aurka 50 burruka ikaragarriak egin eta irabazi zituan. Muskaria (Tudela) 1118 garren urtean mairuei kendu zien eta Zalduba (Zaragoza) 1119 garren urtean". Azkenean Fraga erriaren aurrean il zuten".

"Errege onek Etxe erriari askatasuna ta nagusitza eman zizkion; baita Monzon'dik Monkayo mendiraiñoko larreak artaldentzat eta Siresa'ri Zalbuda'ko Santiago'n eliza". Latxaga'k erakusten digu au guzia. Naparrok, ez dezagun atzendu, len esan dudana, alderdi au guzia euskalduna zala. Orduan errege orrek euskara itzegiñez eta euskaldunez inguratutik egin zituan bere burrukaldi ta irabaziak, mairu guztiak uxatuz.

920 garren urte inguruan Santxo Garzes I Naparroako erregea, Berdun eta Sos artean mairuen aurkako mugak sendotzen ibilli zala; eta beronek Errioxa'ko goiko aldeak bereganatu zituala eta egoaldetik Naparroa'ko sortaldean erresumaren saietsa sendotzen eta zuzperten zuana. Jakiña, orduan Napar euskaldunekin.

Garai aietako kondaira argitzen digu Latxaga jaunak eta gero esaten du: "Oráingo Aragoiko jakintsuak asierak euskal nortasun ori aitortzen dute lasai asko".

"Gaur Aragoi'ri buruz idatzitako liburuetan euskal aztarnak aitortzen dituzte".

"Liburu batek bakarrik" -dio, utzi duala txunditurik"; Jose Maria Lakarra, Lizarra'ko semearenak. Bera Naparra izanik ori ukatzen ez duala, baiño. "Aragoiko euskal aztarnak ikusita, egia ixillik gordetzen dualako. Geroxago dio: "Jose Maria Lakarra'k lurraren izenak irakurri bear lituzke ta gero noiz eman zizkioten izen oiek billatzen asi"... "Etziran mairuak edo erromatarrak orrela baztarrak bataiatu zituztenak. Nork orduan?"

"Liburu orren oroitzapenak, etzuan nere biotzaren poza illundu", idazten du. Etxo'tik Jaka aldera artean aurrena Aragoi ipar aldeko mendi tartean, Oza izena duana, Urdues erria, Araguesa bidean. Emen Lizara izeneko arrotz etxean gaua egin zuten. Osia izeneko ibaia, Artikuzo malkorr, Jasa errixka, Napazal mendi goiña igaro ta ezkerretara Lur eta eskuinertara Artiko mendiak. Begi aurrean Aspe mendi gallurra, eta Borau bidean Sasabe'ko San Adrian'en baseliza eta beiko zelaian Aisa erria. "Begi aurrean Oroel Jaka gaiñekoa eta San Juan'en Arkaitza (San Juan de la Peña).

Erresumaren asieratik Leire ta San Juan'en Arkaitza Naparroa'ko errege zarrak ondo zaintzen dituzte", dio. Bi mendi oietan dauzkate gudako orma lodizko babesak, oso toki zailletan estaliak. Len aipatutako Lakarra jaunak esaten digu, asieratik San Juan'en Arkaitza Naparroa'kin Aragoikin baño".

Garrantzi aundiko monastegia zan angoa. "Ortxen daude Naparroa'ko rrege asko obiratuak" esaten digu Latxaga jaunak. Ederki dakar orko edestia.

Geroxago dio: "Zoritxarrez gure edestia ta gure AMALURRA gaizki ezagutzen ditugu, askorentzat oraindik Naparroa'ko zati aundiak, arrotz lurretaz arzen dituzte, orduan Aragoiko lurretan nola euskalerrria ikusi?"

Naparrok "Naparroa'ko Euskal Arrobia" erakutsiz eldu zaigu Latxaga jauna. Orain esaten digu: "Aspalditik pensatu nuan beste ainbeste egin bear litzakela Errioxa'kin, Deio'ko gaztelu zarrean Lizarra'ko aurrean. An antolatu bear litzake agerketa eder bat Errioxa nola Naparroak mairuen atzaparretatik askatu zuen agertuaz". "Naparroa'ko Euskal Arrobia" etzaigu oraindik agortzen.

AZKEN ALDERA

San Juan'en Arkaitza'ko monastegian 1071 garren urtean, Santxo Ramirez erregea agintari zala sortu zuen Erroma'ko liturjia, artean Toledo'ko elizarena zuten eta.

Arkaiz peko San Juan'en elizatik urbil samar San Cruz de la Seros errixka bat. Au "Naparroa'ko erregearena zan eta X garren gizaldian Santxo Garzas II garrenak bere emazte Urraka'ri eman zion ezkontzaren opari bezala"... "Mendi lepotik ezker aldera "Kruzeta" izeneko tontorrari begiratu nion. Izan orrek berak zerbait aitortzen du. Latiñetik dator, bainan euskaldunak esaten duten bezela".

"Aldapa gañean giñan"... Gure aurrean Oroel mendia"... Iri zarrean sartzen asita berealaxe ipar aldeko gañean, katedralan giñan. Mikel'eri eskua eskerraz eman nizekion. Gure poz aundia zan, azkenean JAKA'n giñan = "Jaka izen ori, Kayetano Enrique de Salamanca jaunak dionez euskal sustrai omen", esaten digu. 809-839 urtetan Aznar Gallindez buruzagi aberatsaren pean bizi ziran lur-alde aiek, geroxeago Iruña'ko erregearen babesean. "Santxo III garrenak, errege onek bere seme Erramiro, Aragoi'ko zerga neurritu ziena, lenengo erregea izendatu zuan eta Jaka'n zeukan esertokia".

Jaka ta bere katedralearen berri asko damazkigu. Ori Erramiron seme Santxo Erramirez erregeak eraiki zuala iri au, katedrala ta jauregiak jasotzeko gizon trebeak billatu zituala. "Iri berri oni bere burua bear bezela zaintzeko, lege berri ta aurrerarlari bat emon zion, Jaka'ko fueroa ezena duana".

Lege au bera eman zioten geroago Lizarra ta Donosti'ri.

1063 garren urtean Jaka'n egindako eliz Batzar nagusiaz, orduntxe egindako katedralaz, au erromanikoa dala, España'n lendabizikoa, eta zein ederra Sarreratik asita. Bi aldare oso ederrak, bata Moreto'k egin zuan eta bestea euskaldun batek. Azpeitia'ko seme artilaria Juan Antxieta'k egiña, Trinitaten aldarea, alabastro arrian ezarria. Gauza arrigarriak agertzen dizkigu gura "Arrobia"ren azken alde ontan. Baita ere Antxieta onen lan ederrak Naparro berean dauzkagula, Tafalla, Kaseda eta Agoitzen (Aoiz). Katedrale ontan museo bat antolatzen ,ari dirala irudi erromanikoak, gotikoak, gurutzeak, Andre Mari ta santuak, inguruko elizetatik bilduak. Ekintza orren buru, Donosti'ko apaiz bat, Aurizenea, kalonjea. Oraindik beste eliza Santiago izenekoa, Mairuekin burruka

aldi latz bat or izan zalako goratua. Jaka'ko berriak ez ditu akitu nai, Santa Orosia, Jaka'ko Zaindari (Patroia) aipatu gabe. Bere gorputza katedralean ornen dago.

Oneraiño irixten da gure Latxaga ta Mikel'en ibillaldia Jaka'n bazkaria egin eta Orea'ra gau artan Meza ematera itzuli zitzaigun apaiz ibilkari ta kondailari arrigarri au.

Baiña oraindik bere liburu ontan bi sail, zein baiño zein euskal-guraren pizkarriagoak ba-darazki. Lenengoa Euskal Txistularia Aragoi'en". Zoragarria da, txistularia arkitu zuenera ta ango txistulari ta dantzen berrixka guzia.

Yebra erri ondoan zan ori guzia ta andik Oska errira Belarra izena duan menditik igaro zan. Oska, edestiak dionez 1096 garren urtean bereganatu zuan Aragoi'ko errege Pedro'k. Garai artan euskaldunen bidez.

Ona, ordea, "Lakarra jaunak arkitu ta argitaratu zuan berria. 1.349 garren urtean iri ontan, euskerari buruz artutako erabakia. (Revista de Archivos 1913 T. 29, p. 433) dakar. Ala dio Errikoetxeko aginduak: "Iten muyl corredor nonsia usado que faga mercaderia ninguna que compre ni vende entre ninguna personas, faulando en algaravia nin en abraich nin en banguec; et gui lo fara pague por coto XXX sol". Agindu orrekin euskaraz mintzatzen, Oska'n galazten dute ta gañera zigortzen. Nungo euskaldunak ote ziran Oska'n euskaraz egiten zutenak?... Naita-naiez oska inguruko rri txietakoak" eta Aragoi mendietako artzaiak". "Agindu orrekin garbi ikusten duguna da, 14 garren gizaldiaren erdiraño Oska inguruan euskara bizirik zegoala".

Bidegabekeri ta zitalkeri aundia zan Euskaraz Oska'n noiz-nai egiten debeatzea. Euskaldunei eskerrak mairuen atzaparretatik askatua zegoan iri ori. Inguruetak erriak euskaldunak ziran. Saltze-erosketak antxe egin bearrak. Debekuz gañera aldiko XXX sol kenduko zitzaizkion euskaraz mintzatu zanari. Baiña ez gaitezen ortaz arritu eta esparik atera. Geron egunetan, Naparroa'n euskaraz itz bat esateagatik, ez al genituen gure maixuak ziorkatu?

Zerk arritu gaitzazke geroztik Aragoi'ko iri, erri, ta baserrietan Euskara pixkanaka galdu izateak?

BERRI POZGARRIAK DAKAZKIGU

1900 urtean Salduba'ko alkateak olerki seria sortu zuan. Erdarazko Olerientzat, baiñan baita euskarazkoarentzat ere. Eta Euskarazko saria, Oska iriaren izenean. Beren aurrekoak egindako okerraren ordañez? Orrelako "erabakiak gogoratu ta eskertu bear ditugula esaten digu, oso ongi.

Gogorazten digu, gaurko Aragoiko biztanleak, orduko gizon aien semeak dirala; Salduba euskaldunen laguntzarekin askatu zala ta Naparrak sartu ziralako lendabizikoak, Alfonso Burrukalaria gora zuala an, San Migel'en eliza, gaur oraindik zuti dagona. Auxe izango da betiko ekintza arren ezaugarri ta oroipen gozoa.

Beste berrixka, ez ain aundia, baiña bai pozgarria. Orexan, ate-joka, Aragoi'ko mutil gazte bat agertu zitzaiola, ta esanez "Ni euskalduna naiz". —Naparra al zera?— Ez Aragoitarra", Ayerbe erriko semea. Nere abizena euskalduna da, Eskue (Eskueder ote garai batean?). 25 urte,... Berez Aragoi'en asi zan euskera euskaraz ikasten" Aragoi'ko erriaren zañak ezagutu naian, irriak egosten zegoan... Txuñezar baserrira bidali nuan. Lau illabete egin zituan baserri ortan. Joseri lagunzen zion ikulluan eta soroan, aurrekin jolasten zan. Azkene-

an euskaraz ondo, oso ondo mintzatzen zuan. "Gazte oni Latxaga'k azkenean euskal Irakasle egiteko Diputazioaren ikastaldietara joateko eragin ornen zion, Sangoza'ko ikastola berrian Irakasle izan ondorean, Jaka berean Ikastola idekitzeko.

Naparrok Latxaga jaunaren antzera sailu ba'giña Naparroa'ren nortasuna, bere Euskal arrobiaren zabaltasun eta luzetasuna ezagutzen! Gure Erregek Aragoi'en zuten eskua eta an egindako lana noiz adierazi zaizkio Naparroara? ez gendun ikusiko, gaur ikusten ari garan euskeraren zapuzkia. Napar guziak irakurriko al dute liburu zoragarri au.

Viloslada'ren "AMAYA" atsegingarria da, baña ez da kondaira. Latxaga'k ordea, euskeraz, eta gipuzkera jatorrean Naparroa'ko kondaira agertzen du. Danak, euskaldunak eta ez diranak irakurri naiko dute liburu au. Latxagaren lan onek balio aundia du.

1975'an
Gaur nequillaren 21'an Latxaga Jaunak
ikustaldia bat egin dit bere liburu
berriak Itzaurra biltzeagatik.
-Fogaldu berria nerea abiskio
jakintza orren ikustaldian.
Egurberrizorietarak!

Itzaur Jaunak



BIXENTE LATIEGI GOIMALLAKO EUSKERAREN LANGILLEA

Bixente Latiegi, asper gabeko euskararen langillea dugu. Oraintxe atera berriak ditu azkeneko bi liburu mardulak:

"EUSKAL KRISTAUTASUNAREN SORKUNTZA" (1996)

"EUSKAL KRISTAUTASUNAREN ZABALKUNTZA" (1996)

Orain arte beste sei egiñak ditu:

"SAN IÑAZIO'REN DENBORAKO ELIZA" (1985)

"DENBORA BERRIETAKO ELIZA" (1986)

"DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA" (1989)

"GURE DENBORA AUETAKO ELIZA" (1990)

"APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA" (1991)

"ELIZAK ETA ESTADUAK BAT EGIN ZUTEN DENBORAKO ELIZA"
(1993)

Liburu berrien izenburuak ezin dute euki izenburu aundiagorik.

Azkeneko liburuaren gaia, kristautasunaren sorkuntza EUSKALERRIAN dabilki. Garai ortaz asko idatzi da ta ezer gutxi berririk esan. Lendabiziko gauza aztertzen duna, nolako Euskalerrria zen garai artan eta noraño mugatua zegoen. Bixente'k dionez, DORDOÑA GARONA ibaien tarte ortako lurraldea euskaldunak ditugu.

EUSKALERRIKO ELIZAREN EDESTIA

Nola sortu zaigu egitazko lan eder au? On Jose Zunzunegi ta Bixente Latiegi'ren artean agindako elkarizketa batetik; Itun Zarra ta Berria euskeraz itzuliak zeuden, Elizaren edestia berriz egiteko, gutxinaz laburpen bat. Latiegi'ri Jose Zunzunegi'k aolku bat ematen dio: "Asi zaitez Errenazimentoko Elizarekin". Orain dela ogei urte asi ta eten gabe lanean gaur arte. San Inazio'ren garaiko Elizarekin asi zen. Orrela atera zen "BIRJAIOTZAKO ELIZA" delako liburua.

Aurtengo emaitza berri onein lau urte lanean dabilzki. Lekuko Elizbarrutiak eta lekaidetxeak aztertuz lan sakona egiten du benetan. Euskalerrri zabaleko edestia idazten du. Zuztarretik aztertzen ditu orduko euskaldunei eransten dizkien lokarriak: bakardadea, basasorkuntza, norberekeria. Priszilianismoa, sakon ikertzen du. Euskalerrriko kristautasunaren zabalkundea agertzen luze

LATIEGI'tar BIXENTE

SAN IÑAZIOREN DENBORAKO ELIZA

(Birjaiotza - Protestalaritza - Elizaren Eraberritza)

ELIZ - EDESTI - SORTA

doa. Bostgarren gizaldian, Ibero ibaiaren inguruan kristau sinismena ondo ezarria arkitzen du. Eskoriaza'ko krismoia ere garrantzi handia ematen dio (V'garren gizaldia).

"Noiz asi ziren euskeraz otoitzak egiten?", galdetzen du, baita erantzuten. "GURE AITA oso goiz", da erantzuna: "III'garren mendean, euskaldunen artean, -AITA GUREA- errezatzen zen".

Ez ote dijoa urrutiegi 29-43 orrialdatan? Eliza Imperioaren morroia zen. Enda txikien izkuntzei bost ajola zien. Nun daude xeetasunak edestian bilduak euskerazko GURE-AITAREN alde?

ERAGOZPENAK EZ DUTE BELDURTZEN GURE GIZONA. Gizaldi batetik bestera lasai dabil gauzak esaten.

Gure idazlearen beste lanak ere aipatu nai ditugu. Garrantzi handia daukate, ere, paper zarretan, antziñako San Millan'go berriak, batez ere tokien izenak; euskal sustrajak ugari azaltzen dizkigu. Urtjak dire, lan sakon onetan sartua dagola. Emaltza aberatsa au, EUSKERAZAINTZA aldizkarian bildua dago.

IDAZLEA AGORTU EZIÑA

Gañera eunka idazlan ditu egiñak aldizkarietan. Anai-arteko guda aurretik ARGIA aldizkarian idazten zuen. Guda ondotik berriz, Prinzipe de Biana delako Iruña'ko euskerazko aldizkarian asi zen idazten, 1974'garren urtea ezkeroz; editorialak egiten zituen aldiro. Orduan asi zen, ere, DIARIO DE NAVARRA egunkarian astero idazten. Gaur oraindik, Bixente Latiegi "NAFAR IZKUNTZA" delako orrialdean izar galanta dugu: Berak ematen dio orrialde orreri ta euskerari bizitasun ikaragarria. KARMEL aldizkarian ere idazten du..

Oso garbi dagona, Latiegi benetan idazle trebea dugula, esan deza-

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)

APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA

(30'garren urtetik 323'garren urtera)

ELIZ - EDESTI - SORTA

kegu; edeslari zorrotza ta gazetari mamitsua. Papera ta luma artu ezkeron nai lukena egin lezake. Gizon gaztearen indarrak ditu, burua guztiz argia ta azkarra, neurri guztien gain.

EUSKERA GUZTIZ ONA

Euskeraren aldetik etxean ikasi zuen eta etxean jarraitzen dute mintzatzen.

Idazleetan maitenak, Orixe ta Lizardi ditu, baita ere Arostegi. Luis Egia Tolosa'r apaiz idazlea, adiskide AUNDIA ZUEN. Bixente Latiegi'k, euskerarekin nai duna egiten du; lau muturretik ezaguna zaio. Joskera ta esaldi zallanak erabiltzen atsegin zaizkio. "Usteko, naiko ta zalantza-ko" esaldiekin ez dauka eragozpenik. Nai bezala erabiltzen ditu eta bere arauetan. Zer den euskeraren askatasuna idaztean, ikus Latiegi'k idatzitako paperak. Idazten erregetza azaltzen daki. Gertakizun izketaz, euskeraz, oso osorik "klasiko" bat dugu: iskuntzaren jabetza, errextasuna, egokitasuna ta berezko askatasuna dauzka. Latiegi'rentzat, euskerak ez du ezkutapenik. Gañera euskera errikoia erabiltzen alegintzen da; gizaseme xeeak errex uler dezakena. Bai, lotsa galdu gabe euskerak zorra aundiak ditula Latiegi'rekin

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)

GURE DENBORA AUETAKO ELIZA

(Lenen-Ludi-Gudua-Totalitarismoa-Españiko Gudua-
Bigarren-Ludi-Gudua-Bigarren Batikan-Kontzilioa)

ELIZ - EDESTI - SORTA

esango genuke.

Euskera, pelotariak jokatzan duten bezala egiten du: jo gora, bera, ezker, eskubi, atze ta aurre, beti zutik gelditzeko, eta gazte, bizkor.

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)

DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA

(1814-1914)

(Demokraziaren Zabalkundea, Sozialismoaren
Jaiotza, Ameriketako Nazio Berrien Arazoak,
«Irugarren Munduko» Eliza).

ELIZ - EDESTI - SORTA

IDAZLEAREN BERRIAK

Nor dugu Bixente Latiegi? 1919'garren urtean, "VALENZIA" delako iriburuan jaio zen gertakariz.

Jaio ta andik jllabetera Betelu'ra, gurasoen etxera eraman zuten azi-tzeko. Amabi urtekin apaiztegitira joan zen.

Aita "solidario" zeukan eta anai-arteko guda etorri zenean, Araiz'ko alkateak, bere osaba zenak, aolku bat eman zion: "sar zaitetz zeure gogoz Iruña'ko kuarteleetan; orrela

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)

ELIZAK ETA ESTADUAK BAT EGIN ZUTEN DENBORAKO ELIZA

(306'garren urteik 476'garren urtera)

ELIZ - EDESTI - SORTA

Bixente Latiegi'k, Dionisio Oñatibia'rekin batean. "Expedientea" altxa zien, baita liburu mardula idatziz, "EUSKAI 7AINDIARI EPAIKETA" (1982) delakoa, ta Akademia berri bat sortu. Egitazko gizona arkitu zuten, baita ere arkaitza gogorra. Zutik, garbi ta zuzen mintzatu zitzairen. Orduan sortutako arazoak erantzun jator baten zai gelditu dira gaur artio ta betiko ozenki salatuak Euskerazaintziaren okerrak.

Bixente Latiegi, "EUSKERAZAINTZA'KO" beste laguneekin, illero biltzen da. Beste langille askoren artean, gizona trebea ta argia dugu.

AMETS BAT

Gizon argiak, langilleak ta asmo aberatsak ugari dituztenak amets zoriontsuak sortzen dituzte, berez, egitan, nai gabe.

Goazen ba arira; Ikastetxe Nagusia Gazteiz'en daukagu. Apaiztegi bezala asi zen etxea, gaur, Teologizko Ikastetxe Nagusia daukagu. Ortzen arkitzen ditugu irakasle ospetsuak ta jakintsuak, ikasle erneak, liburutegi galanta ta aldizkari bereziak. Gizon langille asko

zeure sendiarekin gauzak legunduko dire". Amazazpi urtekin Madril'go borroka tokira eraman zuten sei illabeterako ta andik AKADEMIARA bidali iru illabeterako; "Alferez" egin zuten. Eta "Teniente " izatera eldu zan. Andik gutxira gaxotu zen eta amar urte egin zituen gaxorik.

Iru aldiz alegindu zen apaiztegiara sartzen. Sukarra joan zitzaionean, azkenean lortu zeun 1946'garren urtean. Sukia, gaurko kardinalari esker, sendagille onuragarria arkitu zuen.

1949'garren urtean apaizten dute eta langille gazteen ikastetxera, zuzendari bezala bidaltzen. Zarzarora iritsi arte, bere bizitzako lana orixe izango da.


1978'garren urtean, Euskerazaintziaren Bergara'n eraturako billera nagusian, oso gogor egin zuten

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)

DENBORA BERRIETAKO ELIZA

(Argikuntza, Jakintza Berriak, Iraultza)

ELIZ - EDESTI - SORTA



lana gogotik egin dutelako Elizaren autapen ederra jaio zaigu; Eliz jakintzaren mallan, izen aundiko ikastetxe berria. Orrelako gertakizunak itzal aundia uzten dute gure edestian. Bai, lana oso onagatik datorkigu emaitza guztiz aberats ori. Egindakoak ortxen agertzen dire; onak eta txarrak. Gazteiz'ko Elizaren Goimallako Ikastetxeak argi ederra ematen digu. Bañan argia emateko nun-baitetik sortu bearra dauka, zalantzarik gabe.

Orain gure ametsa dator; jakintzak iturri emankorrek bear ditu izan oñarri bezala. Autapen auetan, sari berexi berexiak, jakintzaren iturriak, agiri agiriran ontzaz artzen dituzte. Sarietan gallurra, Oorezko Doktoradua izaten da. Sanen banaketa oietan Ikastetxeak gizon baten lana ontzaz ematen du, baita aitor-tzen emaitza baten esanaia, gizarteak eskuratu duen aurrerapena, gizon baten edo bizitza baten lanarekin. Sari oiek ematen Ikastetxearen izen onak asko irabazten du, baita ere.

Orain dator esan nai duguna: Gazteiz'ko Elizaren Ikastetxe Nagusiak, Bixente Latiegi'ri, Oorezko Doktoradua eman bear lioke; jakintza ta Elizaren alde egin duan lana márdulagatik. Orrekin eginbear bat beteko luke. Irabazia Ikastetxearentzat izango litzake ta gizarteak Bixente'ren lana jasoko luke emaitza aundi bat bezala: ogei urteko izerdiak, zortzi liburu mardulak, den dena Eliz edestiari buruz. Ikastetxearentzat ekintza berexia ta Bixente Latiegi'rentzat irabazia, baita ere ondo merezia.

Asmo eder au Gaitzeiz'ko Elizaren Ikastetxe Nagusiari eskeintzen diogu. Lanaren balioari buruz orrexek esaten du dena.



BIZKAIERAZKO ETA GIPUZKOERAZKO ADITZA ITZAURRE LABURRA

Bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditzaren zatitxo bat argitu gura dot ikerlan onetan.

Guztiok ondo dakigunez, berbakuntzak ere, bizidun diran gauzak lez, aldatzen eta aldatzen daukaguz mundu onetan, eten barik aldatzen.

Diñodan au egiaztatzeko, euskereari berari begira gakiozan, aren kondaira edo historia ezagutzen dogun gutxi gora-beera bosteun urteotako aldi onetan. Amaseigarren gizaldian idatzi eben idazle zaarrek -Detxeparek, Leizarragak eta abarrak- erabilli ebezan aditz-jokoak gaur ez doguz aitutzen areek erabillizan esangura eta adierazkizunean. Adibidez, Leizarragak dakazan "has zedin" (hasi zen), "bil zedin" (bildu zen), "gerta zedin" (gertatu zen), "etor zitezen" (etorri ziren), eta abar galdurik doguz.

Azkiek ere auxe dirausku (neuk euskeratuta): "Amar edo amalau urte inguru izango dira, Etxarri-Aranaz aldean pozez beterik -arpegian ere igarri jatala uste dot- onango adizki txairo-txairoak entzun nituala: etorri dakit (se me ha venido), etorri dakik (se te ha venido), etorri dakin (se te ha venido, mujer), etorri dakio (se le ha venido), dakigu, dakizu, dakizue, dakioe" (Morfologia, Bilbao, 1923, 575 orr.). Gure egunotan beste aditz-joko batzuk entzuten dira errian bizkaieraz eta gipuzkoeraz.

Gaur bertan beste aldakuntza nabarmen bat zertzen eta mamintzen daukagu dirudi aditzaren eremuan, bai bizkaieraz eta bai gipuzkoeraz.

ÑORK-NORK jokoak geroago eta galduagotuz doakiguzala emoten dau, eta oneen ordezt NOR-NORI-NORK saillekoak zabaltzen eta nagusitzen erriko erabilleran.

Au da:

"Nik zu ikusi ZAITUT", "zuk ni ikusi nozu/nauzu", eta abar asan bearrean, "nik zuri ikusi DAUTSUT/DIZUT", "zuk niri ikusi DAUSTAZU/DIDAZU", eta abar entzuten dira bizkaiko eta Gipuzkoako ainbat alⁿtar). Eta aspalditxotik datorren okerra da. Au dala eta, emendik eun urtera, esate baterako, euskera bizi arren ere, aditza guztiz bestelakoa izatea badaiteke, NOR-NORK adizkera jatorrak sail aunditan galdu egin ziralako, eta areen ordezt NOR-NORI-NORK erakoak erriaz jabetu ziralako. Aldaketa aundia izango litzateke au, etor balekigu.

Amazortzigarren mendean zear itzelezko galtzea etorri zan euskerara aditzaren eremuan, eta auxe zerbait zeaztu gura neuke lantxo onetan, leengo aditzjoko zaarrak eta orain darabilguzanak bata-bestearen parean ipiñirik, irakurleen eta idazleen lagungarri eta argigarri izan daitezcan.

LEENENGO ZATIA

LEENGO ETA ORAINGO ADITZ-JOKOAK (BIZKAIERAZ)

NOR ADIZKIAK (pazientedunak) (iragangaitza)

LEENGO ADITZ-JOKOAK (subjuntibozko baldinera, oraina)	ORAINGO ADITZ-JOKOAK (indikatiibozko jokoak)
--	---

NI	(etor) banadi, banaite	(etorten) banaz
	(etor) baadi, baaite	(etorten) baaz
A	(etor) badadi, badaite	(etorten) bada
GU	(etor) bagadiz, bagaitez	(etorten) bagara
ZU	(etor) bazadiz, bazaite	(etorten) bazara
ZUEK	(etor) bazadize, bazaiteze	(etorten) bazaree, bazarie
AREEK	(etor) badadiz, badaitez	(etorten) badira

NOR-NORI ADIZKIAK (paziente-datibodunak)

NIRI

NIRI

NI	(etor) baakit	(etorten) baakit
A	(etor) badakit	(etorten) baiat
ZU	(etor) bazakidaz	(etorten) bazaiataz
ZUEK	(etor) bazakidaze	(etorten) bazaiataze
AREEK	(etor) badakidaz	(etorten) baiataz

IRI

IRI

NI	(etor) banakik/n	(etorten) banakik/n
A	(etor) badakik/n	(etorten) badakik/n
GU	(etor) bagakizak/naz	(etorten) bagakizak/naz
AREEK	(etor) badakizak/naz	(etorten) badakizak/naz

ARI

ARI

NI	(etor) banakio	(etorten) banaiako
	(etor) baakio	(etorten) baakio
A	(etor) badakio	(etorten) baiako
GU	(etor) bagakioz	(etorten) bagaiakoz
ZU	(etor) bazakioz	(etorten) bazaiakoz
ZUEK	(etor) bazakioze	(etorten) bazaiakoze
ARREK	(etor) badakioz	(etorten) baiakoz

GURI

GURI

	(etor) baakigu	(etorten) baakigu
A	(etor) badakigu	(etorten) baiaku
ZU	(etor) bazakiguz	(etorten) bazaiakuz
ZUEK	(etor) bazakiguze	(etorten) bazaiakuze
AREEK	(etor) badakiguz	(etorten) baiakuz

ZURI

NI (etor) banakizu
 A (etor) badakizu
 GU (etor) bagakizuz
 AREEK (etor) badakizuz

ZURI

(etorten) banaiatzu
 (etorten) baiatzu
 (etorten) bagaiatzuz
 (etorten) baiatzuz

ZUEI

NI (etor) banakizue
 A (etor) badakizue
 GU (etor) bagakizuez
 AREEK (etor) badakizuez

ZUEI

(etorten) banaiatzue
 (etorten) baiatzue
 (etorten) bagaiatzuez
 (etorten) baiatzuez

AREI

NI (etor) banakioe
 (etor) baakioe
 A (etor) badakioe
 GU (etor) bagakioez
 ZU (etor) bazakioez
 ZUEK (etor) bazakioeze
 AREEK (etor) badakioez

AREI

(etorten) banaiake
 (etorten) baakie
 (etorten) baiake
 (etorten) bagaiakez
 (etorten) bazaiakez
 (etorten) bazaiakeze
 (etorten) baiakez

LEENGO ETA ORAINGO ADITZ-JOKOAK

(BIZKAI ERAZ)

NOR ADIZKIAK (pazientedunak) (iragangaitza)

LEENGO ADITZ-JOKOAK
 (subjuntibozko baldinera, leena)
 (presente remoto, Azkue)

ORAINGO ADITZ-JOKOAK
 (indikatiibozko gero-aldia)
 (futuro indicativo, Azkue)

NI (etor) banendi
 (etor) baendi
 A (etor) baledi, balei
 GU (etor) bagendiz
 ZU (etor) bazendiz
 ZUEK (etor) bazendiz
 AREEK (etor) balediz, baleiz

(etorriko) banintz
 (etorriko) baintz
 (etorriko) balitz
 (etorriko) bagintzaz, bagiña
 (etorriko) bazintzaz, baziña
 (etorriko) bazintzaze, baziñie
 (etorriko) balitzaz, balira

NOR-NORI ADIZKIAK (paziente - datibodunak)**NIRI**

NI (etor) baenkit/na
 A (etor) balekit
 ZU (etor) bazenkidaz
 ZUEK (etor) bazenkidaze
 AREEK (etor) balekidaz

NIRI

(etorriko) baintzakit/na
 (etorriko) balitzakit
 (etorriko) bazintzakit, baziñakit
 (etorriko) bazintzakide, baziñakide
 (etorriko) balitzakide

IRI

NI (etor) banenkik/n
 A (etor) balekik/n
 GU (etor) bagenkizak/naz
 AREEK (etor) balekizak/naz

ARI

NI (etor) banenkio
 (etor) baenkio
 A (etor) balekio
 GU (etor) bagenkioz
 ZU (etor) bazenkioz
 ZUEK (etor) bazenkioze
 AREEK (etor) balekioz

GURI

(etor) baenkigu
 A (etor) balekigu
 ZU (etor) bazenkiguz
 ZUEK (etor) bazenkiguze
 AREEK (etor) balekiguz

ZURI

NI (etor) banenkizu
 A (etor) balekizu
 GU (etor) bagenkizuz
 AREEK (etor) balekizuz

ZUEI

NI (etor) banenkizue
 A (etor) balekizue
 GU (etor) bagenkizuez
 AREEK (etor) balekizuez

AREI

NI (etor) banenkioe
 (etor) baenkioe
 A (etor) balekioe
 GU (etor) bagenkioez
 ZU (etor) bazenkioez
 ZUEK (etor) bazenkioeze
 AREEK (etor) balekioez

IRI

(etorriko) banintzakik/n
 (etorriko) balitzakik/n
 (etorriko) bagintzakizak/naz
 (etorriko) balitzakizak/naz

ARI

(etorriko) banintzakio
 (etorriko) baintzakio
 (etorriko) balitzakio
 (etorriko) bagintzakioz
 (etorriko) bazintzakioz
 (etorriko) bazintzakioze
 (etorriko) balitzakioz

GURI

(etorriko) baintzakigu
 (etorriko) balitzakigu
 (etorriko) bazintzakiguz, baziñakiguz
 (etorriko) bazintzakiguze,
 baziñakiguze
 (etorriko) balitzakiguz

ZURI

(etorriko) banintzakizu
 (etorriko) balitzakizu
 (etorriko) bagintzakizuz
 (etorriko) balitzakizuz

ZUEI

(etorriko) banintzakizue
 (etorriko) balitzakizue
 (etorriko) bagintzakizuez
 (etorriko) balitzakizuez

AREI

(etorriko) banintzakioe
 (etorriko) baintzakioe
 (etorriko) balitzakioe
 (etorriko) bagintzakioez
 (etorriko) bazintzakioez
 (etorriko) bazintzakioeze
 (etorriko) balitzakioez

LEENGO ETA ORAINGO ADITZ-JOKOAK
(BIZKAIERAZ)

NOR-NORK ADIZKIAK (paziente-egilledunak)
(iragankorra, transitivo)

LEENGO ADITZ-JOKOAK
(subjuntiboazko baldinera, oraina)

ORAINGO ADITZ-JOKOAK
(indikatiozko jokoak)

NI

IK (ekar) bana(g)ik/n
AREK (ekar) bana(g)i
ZUK (ekar) bana(g)izu
ZUEK (ekar) bana(g)izue
AREEK (ekar) bana(g)ie

NI

(ekarten) banok/n
(ekarten) banau
(ekarten) banozu
(ekarten) banozue
(ekarten) banabe

NIK (ekar) baa(g)it
AREK (ekar) baa(g)i
GUK (ekar) baa(g)igu
AREEK (ekar) baa(g)ie

(ekarten) baaut
(ekarten) baau
(ekarten) baaugu
(ekarten) baau

A

NIK (ekar) bada(g)it
IK (ekar) bada(g)ik/n
AREK (ekar) bada(g)i
GUK (ekar) bada(g)igu
ZUK (ekar) bada(g)izu
ZUEK (ekar) bada(g)izue
AREEK (ekar) bada(g)ie

A

(ekarten) badot
(ekarten) badok
(ekarten) badau
(ekarten) badogu
(ekarten) badozu
(ekarten) badozue
(ekarten) badabe

GU

IK (ekar) bago(g)izak/naz
AREK (ekar) bago(g)iz
ZUK (ekar) bago(g)izuz
ZUEK (ekar) bago(g)izuez
AREEK (ekar) bago(g)iez

GU

(ekarten) bagozak/n, bagaituk/n
(ekarten) bagauz, bagaitu
(ekarten) bagozuz, bagaituzu
(ekarten) bagozuez, bagaituzue
(ekarten) bagaez, bagaitue

ZU

NIK (ekar) baza(g)idaz
AREK (ekar) baza(g)iz
GUK (ekar) baza(g)iguz
AREEK (ekar) baza(g)iez

ZU

(ekarten) bazaudaz, bazaitut
(ekarten) bazauz, bazaitu
(ekarten) bazauguz, bazaitugu
(ekarten) bazaez, bazaitue

ZUEK

NIK (ekar) baza(g)iedaz
 AREK (ekar) baza(g)iez
 GUK (ekar) baza(g)ieguz
 AREEK (ekar) baza(g)leze

ZUEK

(ekarten) bazauedaz, bazaituedaz
 (ekarten) bazauez, bazaitue
 (ekarten) bazaueguz, bazaituegu
 (ekarten) bazaueez, bazaituee

AREEK

NIK (ekar) bada(g)idaz
 IK (ekar) bada(g)izak/naz
 AREK (ekar) bada(g)iz
 GUK (ekar) bada(g)iguz
 ZUK (ekar) bada(g)izuz
 ZUEK (ekar) bada(g)izuez
 AREEK (ekar) bada(g)iez

AREEK

(ekarten) badodaz, baditut
 (ekarten) badozak/n, badituk/n
 (ekarten) badauz, baditu
 (ekarten) badoguz, baditugu
 (ekarten) badozuz, badituzu
 (ekarten) badozuez, badituzue
 (ekarten) badabez, badituez

NOR-NORI-NORK ADIZKIAK (pazien.-egille-datibodunak)
 (iragankorra, transitivo)

NIRI

IK (ekar) bada(g)idak/n, bada(g)istak/n
 AREK (ekar) bada(g)it, bada(g)ist
 ZUK (ekar) bada(g)idazu, bada(g)istazu
 ZUEK (ekar) bada(g)idazue, bada(g)istazue
 AREEK (ekar) bada(g)ide, bada(g)iste

NIRI

(ekarten) badaustak/n
 (ekarten) badaust
 (ekarten) badaustazu
 (ekarten) badaustazue
 (ekarten) badauste

IRI

NIK (ekar) bada(g)iat/nat
 AREK (ekar) bada(g)ik/n
 GUK (ekar) bada(g)iagu/nagu
 AREEK (ekar) bada(g)iek/n

IRI

(ekarten) badaustat/n
 (ekarten) badausk
 (ekarten) badaustagu
 (ekarten) badauste, badaustie

ARI

NIK (ekar) bada(g)iot
 IK (ekar) bada(g)iok/n
 AREK (ekar) bada(g)io
 GUK (ekar) bada(g)iogu
 ZUK (ekar) bada(g)iozu
 ZUEK (ekar) bada(g)iozue
 AREEK (ekar) bada(g)ioe

ARI

(ekarten) badautsat
 (ekarten) badautsak/n
 (ekarten) badautso
 (ekarten) badautsagu
 (ekarten) badautsazu
 (ekarten) badautsazue
 (ekarten) badautsoe

GURI

IK (ekar) bada(g)iguk/n
 AREK (ekar) bada(g)igu
 ZUK (ekar) bada(g)iguzu
 ZUEK (ekar) bada(g)iguzue
 AREEK (ekar) bada(g)igue

GURI

(ekarten) badauskuk/n
 (ekarten) badausku
 (ekarten) badauskuzu
 (ekarten) badauskuzue
 (ekarten) badausku

ZURI		ZURI	
NIK	(ekar) bada(g)izut	(ekarten) badautsut	
AREK	(ekar) bada(g)izu	(ekarten) badautsu	
GUK	(ekar) bada(g)izugu	(ekarten) badautsugu	
AREEK	(ekar) bada(g)izue	(ekarten) badautsue	
ZUEI		ZUEI	
NIK	(ekar) bada(g)izuet	(ekarten) badautsuet	
AREK	(ekar) bada(g)izue	(ekarten) badautsue	
GUK	(ekar) bada(g)izuegu	(ekarten) badautsuegu	
AREEK	(ekar) bada(g)izuee	(ekarten) badautsuee	
AREI		AREI	
NIK	(ekar) bada(g)ioet	(ekarten) badautset	
IK	(ekar) bada(g)ioek/n	(ekarten) badautsek/n	
AREK	(ekar) bada(g)loe	(ekarten) badautse	
GUK	(ekar) bada(g)ioegu	(ekarten) badautsegu	
ZUK	(ekar) bada(g)ioezu	(ekarten) badautsezu	
ZUEK	(ekar) bada(g)ioezue	(ekarten) badautsezue	
AREEK	(ekar) bada(g)ioee	(ekarten) badautsee	

JAKINGARRIAK

- 1.— Ikusi, gura badozu, Azkue, Morfologia, 678, 680, 682 orr.
- 2.— Gauza jakiña da aditz iragangaitzean (intransitibo) Iaguntzaille bi daukaguzana: izan eta edin (ekin ere bai bearbada). Baiña Iaguntzaille biok ez dira erabilten aditz-era eta aldi guztietan. Era eta aldi batzuetan izan Iaguntzaillea jokatzeko da: (etorri) naz, nintzan, banintz, (etorriko) nintzake. Beste era eta aldietan, barriz, edin Iaguntzaille iragangaitza (etor) nadin, daiten, gaitekez...
- 3.— Aditz iragankorean (transitibo) ere beste Iaguntzaille bi darabilguz: ukan (edon edun) eta egin. Eta emen ere gauza bera jazoten da, au da, ukan Iaguntzaillea era eta aldi batzuetan darabilgula: (ekarri) dogu (daugu), genduan, bagendu (ekarriko), genduke... Egin Iaguntzaillea, oster, beste era eta aldi batzuetan: (ekar) dagigun, daikegu...
- 4.— Aditz Iaguntzaille laukotxon artean (bi iragangaitz eta bi iragankor) gauza bitxia ikusten dogu: egin iragangaitza eta egin iragankorra aditz-era eta aldi beretan jokatzeko dirala, eta izan iragangaitza eta ukan iragankorra ere era eta aldi bardiñetan. Zergaitik ori? Euskeraz zer dala eta daukaguz Iaguntzaille iragangaitz bi eta Iaguntzaille iragankor beste bi, eta bai bata eta bai bestea erabilkeran, alkarren (edín-egin eta izan-ukan) pareko eta kideko izan? Emen garrantzizko arazoren bat dagoala dirudi, baiña onen argibiderik ez dot aurkitu ez Azkuegan, ez Kanpionengan, ez Eleizaldegan, ez Seber Altubegan... Jakingai au ez dabe aitatzeko eta gutxiago aztertzen.
- 5.— Azkueren eritxiz, leenengo sailleko adizkiak —zaarrak edo leen erabiltzen ziranak— guztiz jatorrak eta txairo-txairoak dira, baiña erriko erabilkeran

bigarren saillekoak -oraintsuagokoak deritxagunak- jabetu eta nagusitu diralako, oneexek bizi dira. Alan eta guztiz ere, aurreko adizkiok gaur errian entzun ez arren, idatziz noiz-edo-noiz aitatu egin bear gendukezala uste dot, jatorrak eta txairoak izan eta erriak ondo ulertzen ditualako, batetik, eta galdu ez daitezkan, bestetik, euskerarentzat aberastasuna dakarre eta. "Aitari joan banakio" esaldia ez ete da dotoreagoa "aitari joaten banaiako" edo "aitarengana joaten banaz" baiño? Eta Aita Bartolok esaten ei eban modura "begira bagakioz" esatea ez ete da milla bidar apaiñago eta politago gaurko "begiratzen badautsagu" baldarra baiño?

6.- "Banadi, banaite", eta abar gaur esankizun batekoak dira, baiña leen ez zan onelan izan: (etor) "banadi", orain-aldia zan, eta (etor) "banaite", osterara, gero-aldia.

BIGARREN ZATIA

LEENGO ETA ORAINGO ADITZ -JOKOAK (GIPUZKOERAZ)

NOR-NORK ADIZKIAK (pazien.-egilledunak) (iragankorra, transitivo)

LEENGO ADITZ -JOKOAK (subjuntibozko aldinera, oraina)

ORAINGO ADITZ -JOKOAK (indikativozko jokoak)

NI

IK (eraman) banazak/n
AREK (eraman) banaza
ZUK (eraman) banazazu
ZUEK (eraman) banazazute
AIEK (eraman) banazate

NI

(eramaten) banauk/n
(eramaten) banau
(eramaten) banauzu
(eramaten) banauzute
(eramaten) banaute

NIK (eraman) baazat/dan
AREK (eraman) baaza
GUK (eraman) baazagu
AIEK (eraman) baazate

(eramaten) baaut
(eramaten) baau
(eramaten) baaugu
(eramaten) baaute

URA

NIK (eraman) badezat
IK (eraman) badezak/n
AREK (eraman) badeza
GUK (eraman) badezagu
ZUK (eraman) badezazu
ZUEK (eraman) badezazute
AIEK (eraman) badezate

URA

(eramaten) badut
(eramaten) baduk/n
(eramaten) badu
(eramaten) badugu
(eramaten) baduzu
(eramaten) baduzute
(eramaten) badute

GU

IK (eraman) bagaitzak/n
 AREK (eraman) bagaitza
 ZUK (eraman) bagaitzazu
 ZUEK (eraman) bagaitzazute
 AIEK (eraman) bagaitzate

GU

(eramaten) bagaituk/n
 (eramaten) bagaitu
 (eramaten) bagaituzu
 (eramaten) bagaituzute
 (eramaten) bagaitu(z)te

ZU

NIK (eraman) bazaitzat
 AREK (eraman) bazaitza
 GUK (eraman) bazaitzagu
 AIEK (eraman) bazaitzate

ZU

(eramaten) bazaitut
 (eramaten) bazaitu
 (eramaten) bazaitugu
 (eramaten) bazaitu(z)te

ZUEK

NIK (eraman) bazaitzatet
 AREK (eraman) bazaitzate
 GUK (eraman) bazaitzategu
 AIEK (eraman) bazaitzate(te)

ZUEK

(eramaten) bazaitu(z)tet
 (eramaten) bazaitu(z)te
 (eramaten) bazaitu(z)tegu
 (eramaten) bazaitu(z)te(te)

AIEK

NIK (eraman) baditzat
 IK (eraman) baditzak/n
 AREK (eraman) baditza
 GUK (eraman) baditzagu
 ZUK (eraman) baditzazu
 ZUEK (eraman) baditzazute
 AIEK (eraman) baditzate

AIEK

(eramaten) baditut
 (eramaten) badituk/n
 (eramaten) baditu
 (eramaten) baditugu
 (eramaten) badituzu
 (eramaten) badituzute
 (eramaten) baditu(z)te

NOR-NORK ADIZKIAK (pazien.-egilledunak)
 (iragankorra, transitivo)

LEENGO ADITZ-JOKOAK

(subjuntibozko baldinera, leena)
 (presente remoto, Azkue)

ORAINGO ADITZ-JOKOAK

(indikatiibozko gero-aldia)
 (futuro indicativo, Azkue)

NI

IK (eraman) banindezak/n
 AREK (eraman) banindeza
 ZUK (eraman) banindezazu
 ZUEK (eraman) banindezazute
 AIEK (eraman) banindezate

NI

(eramango) baninduk/n
 (eramango) banindu
 (eramango) baninduzu
 (eramango) baninduzute
 (eramango) banindute

NIK (eraman) baindezat
AREK (eraman) baindeza
GUK (eraman) baindezagu
AIEK (eraman) baindezate

(eramango) baidut/nat
(eramango) baidu
(eramango) baidugu
(eramango) baidu'te

URA

NIK (eraman) baneza
IK (eraman) baeza
AREK (eraman) baleza
GUK (eraman) bageneza
ZUK (eraman) bazeneza
ZUEK (eraman) bazenezate
AIEK (eraman) balezate

URA

(eramango) banu
(eramango) bau
(eramango) balu
(eramango) banegu
(eramango) bazenu
(eramango) bazenute
(eramango) balute

GU

IK (eraman) bagintzak/n
AREK (eraman) bagintza
ZUK (eraman) bagintzazu
ZUEK (eraman) bagintzazute
AIEK (eraman) bagintzate

GU

(eramango) baginduk/n
(eramango) bagindu
(eramango) baginduzu
(eramango) baginduzute
(eramango) bagindute

ZU

NIK (eraman) bazintzat
AREK (eraman) bazintza
GUK (eraman) bazintzagu
AIEK (eraman) bazintzate

ZU

(eramango) bazindut
(eramango) bazindu
(eramango) bazindugu
(eramango) bazindute

ZUEK

NIK (eraman) bazintzatet
AREK (eraman) bazintzate
GUK (eraman) bazintzategu
AIEK (eraman) bazintzate(te)

ZUEK

(eramango) bazindu(z)tet
(eramango) bazindu(z)te
(eramango) bazindu(z)tegu
(eramango) bazindu(z)te(te)

AIEK

NIK (eraman) banitza
IK (eraman) baitza
AREK (eraman) balitza
GUK (eraman) bagenitza
ZUK (eraman) bazenitza
ZUEK (eraman) bazenitzate
AIEK (eraman) balitzate

AIEK

(eramango) banitu
(eramango) baitu
(eramango) balitu
(eramango) bagenitu
(eramango) bazenitu
(eramango) bazenitu(z)te
(eramango) balitu(z)te

LEENGO ETA ORAINGO ADITZ-JOKOAK
(GIPUZKOERAZ)

(NOR-NORI-NORK ADIZKIAK (pazien.-egille-datibodunak)
(iragankorra, transitivo) (NOR EDO ZER batekoa, singularra)

LEENGO ADITZ-JOKOAK ORAINGO ADITZ-JOKOAK
(subjuntibozko baldinera, oraina) (indikatibozko jokoak)

NERI

IK (eraman) badezaidak/n
AREK (eraman) badezaida
ZUK (eraman) badezaidazu
ZUEK (eraman) badezaidazute
AIEK (eraman) badezaidate

NERI

(eramaten) badidak/n
(eramaten) badit
(eramaten) badidazu
(eramaten) badidazute
(eramaten) badidate

IRI

NIK (eraman) badezaiat/nat
AREK (eraman) badezaia/na
GUK (eraman) badezaiagu/nagu
AIEK (eraman) badezaiate/nate

IRI

(eramaten) badiat/nat
(eramaten) badiok/n
(eramaten) badiagu/nagu
(eramaten) badiate/nate

ARI

NIK (eraman) badezaiot
IK (eraman) badezaiok/na
AREK (eraman) badezaio
GUK (eraman) badezaiogu
ZUK (eraman) badezaiozu
ZUEK (eraman) badezaiozute
AIEK (eraman) badezaiote

ARI

(eramaten) badiot
(eramaten) badiok/n
(eramaten) badio
(eramaten) badiozu
(eramaten) badiozute
(eramaten) badiote

GURI

IK (eraman) badezaiguk/n
AREK (eraman) badezaigu
ZUK (eraman) badezaiguzu
ZUEK (eraman) badezaiguzute
AIEK (eraman) badezaigute

GURI

(eramaten) badiguk/n
(eramaten) badigu
(eramaten) badiguzu
(eramaten) badiguzute
(eramaten) badigute

ZURI

NIK (eraman) badezaizut
AREK (eraman) badezaizu
GUK (eraman) badezaizugu
AIEK (eraman) badezaizute

ZURI

(eramaten) badizut
(eramaten) badizu
(eramaten) badizugu
(eramaten) badizute

ZUEI

NIK	(eraman) badezaizuet
AREK	(eraman) badezaizue
GUK	(eraman) badezaizuegu
AIEK	(eraman) badezaizuete

ZUEI

(eramaten) badizuet
(eramaten) badizue
(eramaten) badizuegu
(eramaten) badizuete

AIEI

NIK	(eraman) badezaiet
IK	(eraman) badezaiek/n
AREK	(eraman) badezaie
GUK	(eraman) badezaiegu
ZUK	(eraman) badezaiezu
ZUEK	(eraman) badezaiezute
AIEK	(eraman) badezaiete

AIEI

(eramaten) badiet
(eramaten) badiek/n
(eramaten) badie
(eramaten) badiegu
(eramaten) badiézu
(eramaten) badiezute
(eramaten) badiete

LEENGO ETA ORAINGO ADITZ-JOKOAK

(GIPUZKOERAZ)

NOR-NORI-NORK ADIZKIAK (pazien.-egille-datibodunak)
(iragankorra, transitivo) (NOR edo ZER askokoa, plurala)

LEENGO ADITZ-JOKOAK

(subjuntibozko baldinera, oraina)

ORAINGO ADITZ-JOKOAK

(indikatiibozko jokoak)

NERI

IK	(eraman) badezaizkidak/n
AREK	(eraman) badezaizkida
ZUK	(eraman) badezaizkidazu
ZUEK	(eraman) badezaizkidazute
AIEK	(eraman) badezaizkidate

NERI

(eramaten) badizkiak/n
(eramaten) badizkit
(eramaten) badizkidazu
(eramaten) badizkidazute
(eramaten) badizkidate

IRI

NIK	(eraman) badezaizkiat/nat
AREK	(eraman) badezaizkik/na
GUK	(eraman) badezaizkiagu/nagu
AIEK	(eraman) badezaizkiate/nate

IRI

(eramaten) badizkiat/nat
(eramaten) badizkik/na
(eramaten) badizkiagu/nagu
(eramaten) badizkiate/nate

ARI

NIK	(eraman) badezaizkiot
IK	(eraman) badezaizkiok/n
AREK	(eraman) badezaizkio
GUK	(eraman) badezaizkiogu
ZUK	(eraman) badezaizkiozu
ZUEK	(eraman) badezaizkiozute
AIEK	(eraman) badezaizkiote

ARI

(eramaten) badizkiot
(eramaten) badizkiok/n
(eramaten) badizkio
(eramaten) badizkiogu
(eramaten) badizkiozu
(eramaten) badizkiozute
(eramaten) badizkiote

GURI

IK	(eraman) badezaizkiguk/n
AREK	(eraman) badezaizkigu
ZUK	(eraman) badezaizkiguzu
ZUEK	(eraman) badezaizkiguzute
AIEK	(eraman) badezaizkigute

GURI

(eramaten) badizkiguk/n
(eramaten) badizkigu
(eramaten) badizkiguzu
(eramaten) badizkiguzute
(eramaten) badizkigute

ZURI

NIK	(eraman) badezaizkizut
AREK	(eraman) badezaizkizu
GUK	(eraman) badezaizkizugu
AIEK	(eraman) badezaizkizute

ZURI

(eramaten) badizkizut
(eramaten) badizkizu
(eramaten) badiizkizugu
(eramaten) badizkizute

ZUEI

NIK	(eraman) badezaizkizuet
AREK	(eraman) badezaizkizue
GUK	(eraman) badezaizkizuegu
AIEK	(eraman) badezaizkizuate

ZUEI

(eramaten) badizkizuet
(eramaten) badizkizue
(eramaten) badizkizuegu
(eramaten) badizkizuate

AIEI

NIK	(eraman) badezaizkiet
IK	(eraman) badezaizkiek/n
AREK	(eraman) badezaizkie
GUK	(eraman) badezaizkiegu
ZUK	(eraman) badezaizkiezu
ZUEK	(eraman) badezaizkiezute
AIEK	(eraman) badezaizkiete

AIEI

(eramaten) badizkiet
(eramaten) badizkiek/n
(eramaten) badizkie
(eramaten) badizkiegu
(eramaten) badizkiezu
(eramaten) badizkiezute
(eramaten) badizkiete

LEENGO ETA ORAINGO ADITZ-JOKOAK

(GIPUZKOERAZ)

NOR-NORI-NORK ADIZKIAK (pazien.-egille-datibodunak)
(iragankorra, transitivo) (NOR edo ZER batekoa, singularra)

LEENGO ADITZ-JOKOAK
(subjuntibozko baldinera, leena)
(presente remoto, Azkue)

ORAINGO ADITZ-JOKOAK
(indikatiibozko gero-aldia)
(futuro indicativo, Azkue)

NERI

IK	(eraman) baezaida
AREK	(eraman) balezaida
ZUK	(eraman) bazenezaida
ZUEK	(eraman) bazenezaidate
AIEK	(eraman) balezaidate

NERI

(eramango) bait
(eramango) balit
(eramango) bazenit
(eramango) bazenidate
(eramango) balidate

IRI

NIK (eraman) banezaia
 AREK (eraman) balezaia
 GUK (eraman) bagenezaia
 AIEK (eraman) balezaiate

IRI

(eramango) banik/n
 (eramango) balitan
 (eramango) bagenik/n
 (eramango) baliate/nate

ARI

NIK (eraman) banezaio
 IK (eraman) baezaio
 AREK (eraman) balezaio
 GUK (eraman) bagenezaio
 ZUK (eraman) bazenezaio
 ZUEK (eraman) bazenezaiote
 AIEK (eraman) balezaio

ARI

(eramango) banjo
 (eramango) baio
 (eramango) balio
 (eramango) bagenio
 (eramango) bazenio
 (eramango) bazeniote
 (eramango) bailite

GURI

IK (eraman) baezaigu
 AREK (eraman) balezaigu
 ZUK (eraman) bazenezaigu
 ZUEK (eraman) bazenezaiote
 AIEK (eraman) balezaigute

GURI

(eramango) baigu
 (eramango) baligu
 (eramango) bazenigu
 (eramango) bazenigute
 (eramango) baligute

ZURI

NIK (eraman) banezaizu
 AREK (eraman) balezaizu
 GUK (eraman) bagenezajzu
 AIEK (eraman) balezaizute

ZURI

(eramango) banizu
 (eramango) balizu
 (eramango) bagenizu
 (eramango) balizute

ZUEI

NIK (eraman) banezaizute
 AREK (eraman) balezaizute
 GUK (eraman) bagenezaiote
 AIEK (eraman) balezaizute(te)

ZUEI

(eramango) banizue
 (eramango) balizue
 (eramango) bagenizue
 (eramango) balizute

AIEI

NIK (eraman) banezaie
 IK (eraman) baezaie
 AREK (eraman) balezaie
 GUK (eraman) bagenezaie
 ZUK (eraman) bazenezaie
 ZUEK (eraman) bazenezaiete
 AIEK (eraman) balezaiete

AIEI

(eramango) banie
 (eramango) baie
 (eramango) balie
 (eramango) bagenie
 (eramango) bazenie
 (eramango) bazeniete
 (eramango) bailite

LEENGO ETA ORAINGO ADITZ-JOKOAK
(GIPUZKOERAZ)

NOR-NORI-NORK ADIZKIAK (pazien.-egille-datibodunak)
(iragankorra, transitivo) (NOR edo ZER askokoa, plurala)

LEENGO ADITZ-JOKOAK
(subjuntibozko baldinera, leena)
(presente remoto, Azkue)

ORAINGO ADITZ-JOKOAK
(indikatibozko gero-aldia)
(futuro indicativo, Azkue)

NERI

IK (eraman) baezazkida
AREK (eraman) balezaizkida
ZUK (eraman) bazenezaizkida
ZUEK (eraman) bazenezaizkidate
AIEK (eraman) balezaizkidate

NERI

(eramango) baikit
(eramango) balizkit
(eramango) bazenizkit
(eramango) bazenizkidate
(eramango) balizkidate

IRI

NIK (eraman) banezaizkia
AREK (eraman) balezaizkia
GUK (eraman) bagenezaizkia
AIEK (eraman) balezaizkiate

IRI

(eramango) banizkik/n
(eramango) balizkik/n
(eramango) bagenizkik/n
(eramango) balizkiate/nate

ARI

NIK (eraman) banezaizkio
IK (eraman) baezaizkio
AREK (eraman) balezaizkio
GUK (eraman) bagenezaizkio
ZUK (eraman) bazenezaizkio
ZUEK (eraman) bazenezaizkiote
AIEK (eraman) balezaizkiote

ARI

(eramango) banizkio
(eramango) baikio
(eramango) balizkio
(eramango) bagenizkio
(eramango) bazenizkio
(eramango) bazenizkiote
(eramango) balizkiote

GURI

IK (eraman) baezaizkigu
AREK (eraman) balezaizkigu
ZUK (eraman) bazenezaizkigu
ZUEK (eraman) bazenezaizkigute
AIEK (eraman) balezaizkigute

GURI

(eramango) baikigu
(eramango) balizkigu
(eramango) bazenizkigu
(eramango) bazenizkigute
(eramango) balizkigute

ZURI

NIK (eraman) banezaizkizu
AREK (eraman) balezaizkizu
GUK (eraman) bagenezaizkizu
AIEK (eraman) balezaizkizute

ZURI

(eramango) banizkizu
(eramango) balizkizu
(eramango) bagenizkizu
(eramango) balizkizute

ZUEI

NIK (eraman) banezaizkizute
 AREK (eraman) balezaizkizute
 GUK (eraman) bagenezaizkizute
 AIEK (eraman) balezaizkizute(te)

ZUEI

(eramango) banizkizute
 (eramango) balizkizute
 (eramango) bagenizkizute
 (eramango) balizkizute(te)

AIEI

NIK (eraman) banezaizkie
 IK (eraman) baezaizkie
 AREK (eraman) balezaizkie
 GUK (eraman) bagenezaizkie
 ZUK (eraman) bazenezaizkie
 ZUEK (eraman) bazenezaizkiete
 AIEK (eraman) balezaizkiete

AIEI

(eramango) banizkie
 (eramango) baizkie
 (eramango) balizkie
 (eramango) bagenizkie
 (eramango) bazenizkie
 (eramango) bazenizkiete
 (eramango) balizkiete

JAKINGARRIAK

- 1.— Bizkaieraren eta gupuzkoeraren (eta beste euskalkien) artean daukagun bereiz-garrienetako bat auxe dugu: bizkaieraz laguntzaille iragankor bezala **egin** aditza darabilgula, eta gupuzkoeraz (eta beste euskalkietan), berriz, **ezan** aditza. Bizkaieraz **egin** aditz laguntzaillea jokutzen den era eta aldi baraietan erabili oi da gipuzkoeraz **ezan** laguntzaille iragankorra.
- 2.— Aditz laguntzaille iragankor bikoitza erabiltze onek badakarzki gora-beerak bizkaierazko eta gipuzkoerazko adizkietan, naiko itxuraldatu egin oi ditu eta. **Argibidez:** (ekar) **dagigun/dezagun, dagizuzan/ditzazun, dagiket/dezaket, dagiketsudaz/dezaizkizuke**, eta abar.
- 3.— Beste bere izgarri nabarmen bat NOR edo ZER (pazientea) askotu egiten duen -Z izki pluralgillea bizkaieraz adizkiaren azkenengo tokian ezarten da beti. Gipuzkoeraz, ostera, aditz-erroaren urrengo geienetan, ez azkenengo lekuan. Ikusi:
 — DaukadaZ, zatordaZ, gaukazuZ... bizkaieraz.
 — DauZkat, zato(r)Zkit, gauZka(t)zu... gipuzkoeraz.
 Askotarako -Z au, gaiñera, sarritan NORI edo "datibo"ren aurreizkiari loturik doakigu, pluralgillea —ZKI— egiñik. **Agerbidez:** Nik ipui asko dakiZ-KIt, zuk ere badakiZKIzu, eta abar.
- 4.— Beste gora-beera edo ezberdintasun batzuk ere badira bizkaieraren eta gipuzkoeraren artean, baiña aitatutakoak argigarri izan dakizkiguke bizkaitarrek lan ontara ekarri ditugun gipuzkoerazko jokoak uler eta azter ditzaten, ene ustez.
- 5.— FERNANDO MENDIZABAL-en EUSKALDUNENTZAT GRAMATIKA EUSKERAZ izeneko liburua (Arantzazu, 1969) lagungarri izan dut lan au egiteko.

Pedro PUXANA, arabarrak



AINBAT ERRI REN ETA IZKUNTZEN SUNTSIPENA EUSKERAREN BIZIRAUPEN MIRESGARRIA

Iñoz egingo ote zaie justizi erri txikiak? Baiezkoan dago biotz zabaleko Salbatore Mitxelena zarauztar olerkari iaio ua bere nunbaiteko lanen batean irakurria nagoanez.

Ez dakit nik ze justizi-mota egingo zaien urtez abailduak edo-ta besteen ankapean dagoaneko desagertuak diran ainbeste ta ainbeste erri ta bertako izkuntzai. Egingo, agian, gurea bezalako Erri ankaperatu, txiki ta iltzear daudenai?

Ez dut uste esaldi txeratsu orrek funtsezko galdera egiten duanik, ez bait-du iñolako erantzunik beñere izango. Erriak (eta beurekin zortean loturik daukaten izkuntza) edozein landarek edo-ta gizakiren antzera, beren ildoari jarraituaz iraungo dute, berezko ajeak eta gaitzak auldurik naiz etsai dituzte-nengandik menperaturik zearo suntsitu ta lur-jo arte.

Nere idazmaian "Antziñateko Edestia" deritzan ikas-liburu baliagarria daukat lumatu eder batez ornituta. Mapa oni begira, gizaldi gendutsuen barrena, esti-egiñaz, begiz eta beatzez urruntzen naiz, zenbat erri ta izkuntza diran erabat deuseztatu, galdu. Eunka ta eunka, noski! Au edozeiñek ziurtatu dezaken gauza da izkuntzalaritzan trebatu gabea izanarren. Adibidez, sanskrito izkuntzaren aipamenik entzun ez duanik bai al da? Asia'n arnasartu zuan eta puztuz ingurune guztietara edatu zitzaigun. Mintzaira onek nun-nai erein zituan bere aztarnaziak, noranai luzatu bere olagarro-guarrak, zenbait adituk ziurto digute-nez. Erri txiki ta aundiak aspaldi utzi zioten sanskritoz jarduteari. Eta ez atzo edo eranegun. Amazazpiren bat gizamende ba'dira jadanik ixildu ta mututu zitzaigula danen ezpainetatik, gaur Asia'ko zenbait erlijio-jendek, eskolatuak, goen klase ikasiak ezaguna ba'dute ere.

Zarathustra'ren izkuntza izan zan. Sei millaren bat Kristo aurretiko denboretan bizirik, erlijio berri baten aldarrikatzaile eta gerkar tradizioak aztikuntzaren, astrolojiaren eta alkimiaren maixutzat artua. Sanskritoz idatzi zigun munduan ezagun dan epopeiarik erraldoiena: Mahabarata, indiar askaziaren sorreran lurbertakoen artean suztatutako liskarren edespen luzea. Izkuntzan eta itzegi-leak, elerti-maillarik goena ikuturik ezerezean amildu ta pulunpatu ziran.

Orain, jauzi aundia egiñaz eta gaingiroki gatozen Europa'ra. Mediterraneo ertz osoan Portugal'eraño, leku-itx bakanez edo-ta ez ain bakanez zipriztindu-

tako izkuntz zaar baten lorratzak ikus ditzakegu: latiñarena. Garai batean eremu zabal eta indar bizi-luzea ezagutuaren, aspalditxo errien ezpainetatik ixildua. Eta eliz-jendearen erlijiozko jardunez iraunazia.

Latiña, Erroma-inguruetan be-maillako usaiez txiro jaiotako ta koskbndua dugu, izkuntza guztiak bezela.

Denboraren arian, izkelgizat jotako latin arlote onek, gerkerak aberats-landuari latiñak etzeuzkan zientzi ta erti-itz guztiak lapurtu ta bere —berek egin zituan. Erromar gudarozteen bitartez arrigarriri edatu zan Europa'n barrena, eta gero areagotu bere mintza-indarra zeraman administrazioaren ariketaz eta baita, leen esan dugunez, Elizaren liturgi-bidez ere.

Bergili, Zizero ta Orazio, gerkerak landuaren laguntzaz eta enbiriz latiña jasotzen eta dezteratzen ainbeste axolatu ta saiatu ziranak berpiztuko ba'lira, beuren latera kuttuna aienaturik ikusita ez ote lirake txunditurik berriz ere obira iraduz itzuliko?

Beste izkuntz-ondakin berri billa zertarako jarraitu? Aipatutakoak uste baiño argigarriagoak dira. Ta gogoan izan, sanskrito ta latiña, biztanlego-kopuru aundi baten mintzoak izan zirala, jatorri askotakoen eguneroko mintzaira, ikasienak eta ikasigabekoenak, menderatzaile ta zapalduenak. Maixukiro kulturaz loretuak, lege-gaitasunaren indarrez ofizialak, mende luzetan iraunaziak, eta latiña gaur arte erlijioetan erabilia.

Sanskrito ta latera ez dute jadanik bururik jasoko, ez dira iratzarriko. Izkuntzak kaletan iltzen diranean ez dute berpizteko itzaropenik. Izkerak jardunean bizi bait-dera mintzairak. Ta jende-itzegille multzoak geiago dezake Akademia gorengoenak baiño. Bi mintzaira oiek goen maillakoak izan ziran! Aien izerdiz iñuturik bizi dira gaurko zenbait izkuntz-kimu. Zerk eraman ditu eriotzara ezil-kortasuna arnasartzen zuten oiek? Gaitz zeatz batek eraman ote ditu eriora ala zaarrez ajeatu ta abaildurik il ote?

Kultur-anemiak II omen ditu batzuk (izkuntzalaritzaren pilosopariak eta beste zenbait politiku abotzar aundiren esanez), tajuz iñututako izkuntz mardulpean zapalduak. Baiñan ba'dira basakume izanarren (edo-ta iraiñez eta eztenka ala deituak) eta baztartu-eraziak aldi berria iritxiko zaielakoan bizirik jarraitzen dutenak.

Landarean adin-muga eta abereenak ere ezagutzen dugu baiñan ez dakigu non dagoen muga izkuntzetan. Agian kultur geiegiak iltzen ote ditu? Alare ba'dira, gerkerak bezela, il ez diran mintzaira landu-landuak. Latera bera baiño zaarragoa dugu gerkerak ta bizi da.

Ba'dira ere elertigabeko edo-ta gutxiko mintzaira zar-zarrak, ezin esaneko egoera zaillean bizirik, il-zori luzean sarri, baiñan alare, bere billuzgorritasunean bizi-bizi dirautenak gure arbasoen ondare dan euskera bezela.

Euskaldunak oso antziña sortu zuan bere mintzabidea. (Ba'du bai etniarekin zerikusi aundia!) Ez da iñungo izkuntzaren kume, gaurregun ezagutzen ditugun geienak bezela. Jasan bear izan duan nekaldia zertarako azaldu? Danok jakin dakigun gauza da-ta. Ta bizi, bizi da etorkizun itzaropentsuari begira.

EGIGAIN'EK



JUSTO GARATE'REN ONDAREA ADITU BATEN "AUTOBIOGRAFIA" **LIBURU BERRIA**

Onatx guda ondorengo aldirarte entzutez besterik ezagutzen ez nuan gizona. Zorionez, nere adiskidemin baten bitartez eldu zitzaidan eskuetara Argentina'tik "Ekin" argitaletxeak irarritako Justo Garate'ren "Cultura Biológica y Arte de Traducir". Liburu onek bereala ezagutarazi zidan etzala nornai ain sakon eta trebaki Medikuntzan, sendagille-zurrian, ezezik ainbat arlo zailletan idazten zuana eta alako epai zorrotzez eta gardenez ideiak eta itzulpenak argigarri egi-ten zituana. Euskalerrria'n, aren eriotzak (90 urte beterik) mailla ontako gizon baliotsu baten utsunea agirian digu jarri.

Ongi merezi zuanaren oroi-plaka jarri erazi zuan Bergara'ko Udalak Justo Garate jaio zaneke bere etxeurreko atarian, aste ontan bertan ikusi dudanez.

1936'garrengo Estatutoarekin, Bilbo'n danen pozarekin, Agirre Lendakariaren agintaldian, sortuberriko Unibertsitatean, Medikuntza fakultadean punterengo izan zitzaigun. Gerrak, politikazko alabear ziztrina Euskalerrri'tik urruti erbesteratu zigan kultura-senez opero ornitutako gizon jakintsu au. Aldegin bear izan zuan bai, eta zenbait erritan lurrartze zalantzakorra ondoren, Argentina'n aurkitu zigan erbeste-egoitz atoskorra. Erbestealdiak areagotu zigan bere jakin-miña, jakinduria, ez urritu. An-emen gerairirik gabe erriz-erri ibilliz, bere mailleko gizon adituekin etengabeko arremanetan, munduko gizonik jantzienetakoen arteko kide biurtu zitzaigun, osasun eta baikortasun aundiz biurtu ere. Gaiñera, izkuntzetarako zeukan gaitasunik neurrigabea, mintzairak euren artean daramaten kidetasuna, ikutu edo-ta antzekotasuna, adoiiaz eta maixukiro agirian ipintzen alegindu zan.

Sakon-sakonetik euskerakiko zeukan ezagutzak itz eztabaidatsu askoren saio ta filologiazko azterpen errotsuari eraman zuan arrigarrizko atarramendu onarekin.

Liburu irakurle asegaitz eta ireslea zanez, nun-nai aurkitu oi zigan bere

baiespen eta saioketarako originaltasunik gardenena, aidean zabalik zebiltzan errakune nagusienak aipatuz. Zientzi-Kongreso askotara joana zanez, zeraman gogo irizle ta sortzailleak edozertan topa oi zuan pentsabidean ausnarketaz aburu ta bide zuzena lortzeko zudugarri izan ziteken ertz atseginen bat.

Guda osteko euskaldunen sakabanaketa edo diaspora dalako erbestealdian nortasun aundienetako gizona izan zan, 1.900 urtean jaioa. Uste ez bezalako zientzi-lan gizartekoi ta kulturarekikoa egin bait-zigun. Aren aleunka artikululu, itzulpen ta beste ariko idazpen eta itzaldiak bibliografia arrigarria ta aberatsa eratzen digute. Oraingo ontan onelako tituluarekin: "Un crítico en las quimbambas". Autobiografía y escritos". Eun ta amalau orrialdeko liburu apaiña, edukiz jori. Liburu au "Amerika ta euskaldunak" egitamuaeren elburuetako bat betetzera dator; euskal amerikar gertakaria zabalitzea.

Alor edatsua goldetzen duan liburua dugu: Gudaldia, Toponimia, Gure Lurraren izenak, Unibertsitatea Euskalerrria'n, Jesulagunen irazketa, Antropologia, Judutarrak, Agirre'tar Lope, Erzilla, Baroja, Txao ta zerrenda ontan abar luzea.

Ematen dituan iritzietan, zentzun argiz beti, etzaigu axaletik edo arinkeriz ibiltzen. Ez du itz-jarioka ideiak belaxkatzen. Au dala-ta dugu zeatz, zoar eta itz urriko, agian zenbaitetan legortxo ta buruzkotxoegi, baiñan beti doitasunez, benaz eta duinkiro.

Liburu au, bearbada, ez da arnasaldi batean irakurtzekoa, neri gertatu zaidan bezela. Baiñan ala izanda ere bigarren irakuraldi lasaia bear du, orrialde auetan zer-ikasi asko dago-ta.

Liburu interesgarria benetan, Bergara'ko Alkateak, Gallastegi jaunak oraintsu nere emazteari opariz emanikoa eta nik ezin-esaneko irakur-egarriz epe motzean (esan dudanez) irentsi ta bukatutakoa.

Liburua, irakurle, Justo Garate Arriola doktoarearen saio-lanaren erakustalde. bat da, ez mukulutsua baiñan adoitsua nolana ere.

OSINTXU'K



IPUINA

ZANKAMEHE

Arrastirian, aize mingar bat jeiki zen, iparreko aldetik jiten zena. Laster, petik agertü ziren odeiak; ekia, jadanik zurpail, orano zurpailagotü zen. Bortü alderaganean, hedatzen hasi ziren, bertan zelü osoa bete beno lehen, ekia itzali züen odei beltzak. Ordü zonbait gaütü aitzin, oro ülüntü zen.

Gero, iñazi batek aldea zehharka ürratü züan, izigarriko karraskaz arrunt jarraikirik. Ühülgü eta burrunbotsen erditarik kaskabürra erorten hasi zen: lürra xuritü züan. Kanpoan, hotza apaltü beitzen eta jauzia handitü barneko berotazünaren eretzean, hats busti batek leihoko bitreak nahasi zütüan. Esküareki xahatü arte batetarik, ageri ziren ebi txortolak, gero elürra abiatü zen xehe xehea. Leiho giblean ziren haurren soa, lüma bakoitxareki edo lüma saldoareki, taigabe lürrealat jaisten zen, gero goititzen, berriz jaisteko, ezin bildüzko amets baten ondoan. Hor ziren orano gaüa jin zenean.

Gaü orotan, elür egin zuan: xehe zelakoz, hobeki lotü zen eta ehikiago loditü. BEINAT jeiki zenean, goizik beti bezala, begi kaldü bateman züan üngürüalat: zohardi tipil zen, ekialtetiko aize batek begitarte jo zeion. Elürra orotarat zabaltzen zen: okolia, soro alorrak, eretzeko maltak, gorago prefosta oihan bortüak xüri ziren. Zühaintzeen adarrek üdüri züen eskü gorde batek etxekitzen züan baheaz irinstatürük zirela. Etxetako hegatzetan, estalki zuri lodi bat hedatürük zen: gizonaren arabera, bi zehe nonbait üken behar züan.

—Holako zohardi eta aizeareki, erran züan ber bürüari, elürra ohntsa karruntatürük dükek. Hau negüa dük.

Leioha zerratü züan eta süaren piztera plantatü zen.

Bere lanak ützirik, BEINAT-ek maite züan ützüli baten egitea, bortüan. Bularra hantzen zeion eta pizdüra bat biltzen zuan. Bena elürra zenean, berehala hartzen züan arte bat, pentsatzen züan behar zeiola nolabait bühürtu, zeren eta laket zeion erraitea:

—Gizona izadiaren ekeien goitzeko eginik dük.

Egünko egüna haitüa züan hortarako. Mendi patarra karruntatürük zen, bazüan hortan bürkide bat azkarra, horreki sarrixe borrokan sartzeko.

Bizkarrean züan zarpan, jateko xühür bat eta bospasei sükre tarrok ezar



eta abiatü zen. Maxela lein ejerrealä heltü zen, gora бүрүз sogin zuan. Hats lüze bateki erran zuan:

– Hau, hau, ene oraiko sail ederra! Koneska joanen нүк: haratago, baztarean nizateanean, oihaneko bidexetik jaitsiko нүк.

Bera eki ekarri zütüan бүрдүин kakoak oski zoletan tinkatü zütüan; hona BEINAT elür zurian petigora бүрүз.

Ikasi züanaren arabera, makila gorriari bermatüz, aitzina ezarten züan zankoaz zapatzen züan elürra, xilonka bat egiten, bere oski бүрдүин hortzak sartzen, hor berriz bermatzeko eta bergaüza egiten züan beste zankoaz. Baratz baratz zoan, үрратsez үрратs, bere бүрүaren elürrean ontsa сегүртатtez.

Bestalde, elürra lür eztiala erori beitzen, axala bera züan karruntatүrik, zola busti zuan; hola delarik, agitzen dira elürrosoak. BEINAT tentüz zoan, holakorik ez ledin hel, elürpean ehörtzirik, arrabaski ez ledin arrolla zolan. Zeren askitan durduilazka doatzan elür meta handiak, beren үтзүлүkak baxen eta naba orotan aranatzan дүalarik, дүнда karraska handi balde. Egүн hartan ja, iratzarririk egon behar züan.

Behin ontsa abiatü ondoan eta begistatü norat ari zen, ez züan sorik bere үрратser baizik. Maxela erdixeala heltü bait, elürra makatүrik ikusi züan. Haurtzarotik ezagүgarri güzier soegitera ekarririk zen eta ihize oroen herexenberezten bazakian. Zale ezagүтү züan orkatzaren bi azүzkүlүen xiloa, elürrean. Saldoxka batek izan behar züan, hamar baten күntатzea uste үken züan, xiloak hanitx beitziren.

Hoietarik bata orkatz Zankamehearena zen.


Denen gibeletik zagon ere ihizor baten aztaparraren atza. Honek, elürрaren gatik oihan zolan bildү ziren orkatzak үsnatү zütüan eta tipilүnealat lasterkatү.

— Ata, elürra deno, ez dük ihizekarik, zion berartan BEINAT-ek. Tzakürrek barnean estekan etxeke behar düe.

Güre órkatz horiek, beste orkatzek bezala, oihanean züen beren bizitzea. Saldoxketan, harat honat zoatzan, bai ordokilla batetan etzanik, bai soraki alan edo bagasta axal jaten, bai izerdiz hantü izei axal eliki mihikatzen, bena beti haietarik bat bazterrer so edo aizearen üsnatzen zagolarik, mütürra lüzatürrik, eta beharriak baktxa bere gaintialat ütülirik. Hola ere bizi zen Zankamehe bere lagünen erditan.


Noizetik noizean, agitzen zeion baztertzea bere amareki; honek, bago edo izei baten ondoan, egoxkitzera emaiten zeion, edo, alan ari zeno, üngürüak kukuxkatzen zütüan, bere hümeari deüs minik ez leikeon hel. Ikasten zeitzon beren ohiko iragangiak, ürrats arinez lasterka ebiltzen ihork ez entzütoko heinean, botxe batetik besteala hegaltaka bezala jauzten, zankoen ezarten harla-xe baten hegian. Ama eta Zankamehe hanitx gozatzen ziren algarreki. Bai, algarreki zer ordü honak iragaiten zütüen!

Bürü kaldüa jiten zeiolarik, berbera bestetarik ixil ixila gürrüntzen zen. Ordüan libertate gozo bat iresten züan, üdüri zeion bazter güzien jabe zagola. Berbera emeki zoan, zanko arinagoz, büztana txüt, beharriak ere, büztana exker eta esküineko beharria esküin, büztana esküin eta exkerreko beharria exker, bularra hantüz eta bürüa gora.



Taldeareki zelarik oihanaren erditan, bizpalau aldiz, oihü herroka bat entzünik hürrünean, behartü zeion lagüneki lasterka hartu. Zerentako? Ez zakian. Bena zerbait gaixtok izan behar züan, zeren eta oihü horiek arantzen züen aldi bakoitx, saldoa zale zalea ihes zoan. Prefosta, borogatzen züan lagün güzietan erreüstarzün bat eta bera ere ez zen hain harro eta ikare batek bezala hartzen züan.

Ez ezagüna zeion ihizoren txanpa, bere lagünen herexan zoatzalarik. Behin haatik, bera zen egün batez, oihaneko batiaren ixiltarzünean, oihüak entzün



Iglesia románica de Sainte-Engrace (Zub.).

zütüan. Ezaxol, eбилtez aitzina joan zen. Bena bertan, ezagünago izan ziren oihüak. Txanpareki batean, hasi ziren haren beharrien taigabe joiten. Ez zen düdarik, orai berartarat hüilatzen ari ziren. Jiten ziren gaintialat бүрүа үтзүли зүан, ikүsi bi ihizor lodi, txanpaz, мүтүрра лүрreala лүзатүрик eta lotүрик, gizon baten botzaz bere үрrats bakoitxari haxitүрик.

Gizona ezagүтzen зүан, bazakian, saldoko lagүnek salatүрик, bere etsai handienetarik bat zela. Hanitxetan, berak ikusten зүан, noiz bago edo izei egoixten, eskүetan tinkatzen зүalarik zur zahi barrasta bat iraurten зүан burrunba handi egile bat; noiz лүрrelat күпүstүрик, onddo txapel belxdүnen zankotik mozten; noiz eremakila bat eskүan, txakүr llabrit bat ondoan, artola eder bat bortү alagiak gainti harroki horabiatzen зүalerik. Bena beti hartarik ahalik hürrүнenean agoiten zen. Iragaitean, ez zeion so lasterbat baizik egiten, eta hori, bere бүрүа erakүsi gabe, bagasta edo goroxti moto baten gibeletik.

Ordүan, gizona ikusi зүanean, haren botza eta ihizoren txanpa ber izarian ari zirela, oritү zeion saldoaren lasterka eta berak мүtsүka lasterra hartү zuan. Bihotz tximiko batez akүilatүрик, oihanetik lekүa hortү зүан. Lehen aldikoz зүан oihana үzten, zeiharka eta marratүz jaitsi zen, gizonenak ziren ezagүтzen ez zütüan etxeak ikusi зütüan, kihilla baten pean hatsa hartү зүан etzanik. Gero, delako oihү lүze hүrak hürrүnealat hurtү bezain sarri, indarrak berritүрик, oihanealat arrajokatү zuan.

Egүн hartarik landa, bere beste orkatz lagүnetarik ez zen haboro bazterzen, hoieki saldoan egoiten zen. Beti bezala zaharrenetarik bat oroen zain beitzagon, bakean besteeki alan ari zen edo etzanik atsedен amiñi bat gozaten зүан.

Oihanaren erdi erditan arren bizi ziren. Zerbait mehatxü sortzen zelarik, hürünxeago joitez ejerki bühürtzen ziren. Bago eta izei petan aterbüstatzen ziren. Han behar zen bezain beste zagotzan, gero berriz oihanaren erditarat biltzen ziren.

Bekan, beharrüneak eramaiten zütüan hantik baztertzer. Hola agitzen zen bai ihizorer, bai basabere gaixtoer, hala nola hartzer, ihes egiteko. Elürte handi zelarik ere, jaisten ziren oiharen hegiala, han ehikiago edireiten beitzüen bazka, bereziki ekiak joiten züalarik, zaleago ere elürra hurtzen zelakoz.

BEINAT-ek orkatzaren herexak begistatü zütüalarik, ihizorak zütüan beraz oihanaren zolatik ohiltü. Lehenik tink tinka zoatzen saldoaren herexak, gero bat, oroen artetik berezten zen: Zankameheárena.

— To, gaixo hau, erran züan goratik BEINAT-ek, tzakür tzar horrek herexatü dik eta saihets eraman bestetarik baztertü eta.

Aztapar sardeak beheiti бүрүз zoatzen, ihizoraren hatzak jaraikirik. Han zolan, BEINAT-i üdürütü zeion, botxe hegitik, azken horik baizik ez zirela goiti бүрүз berriz joaten.

— Bere lan itsusia бүрүтү dik, igaran züan berartan.

Jaitsi zen baxa behera, orkatzari xüxen zer ote agitü zeion jakin beharrez. Goiti бүрүз bezala, bena benia handiagoreki orano, beheiti zoan, saihetsez, oski bakoitxa bere бүрдüin kakoeki elürrean aldizka ontsa segürtatzen züalarik. Hegiala heltü zen, elürra zapatürük zagon güneala drano.

Arroilarat sogin zuan: dala apürtto bat asmatzen züana agitü zen.

Zankamehek, askitan bere lagüner gertatzen den arabera, nahiago üken züan ihes egin jauztez, bere bizia han galdürük ere, eziez ihizoraren llago eitzi bere korpitza.

Han zagon, erreKaren bazterrean, berrogei metra beherago, lüze lüzea, arrabaskirik, haatik odol palparik gabe, bere neguko jauntsi ederrenean.

BEINAT, bihotza erdiratürük, so egon zeion, etxerat ützüli zen, esker gaixto bateki bazkaltü.

(Ipuin honek Euskal Herriko kultur etxea-k 1986-an antolatü saria irabazi züan)

Junes CASENAVE-HARIGILE

USO-ZURIA

Miren...

Patxi...

Neska koxkor batzuek:

I - neska koxkorra...

II - neska koxkorra...

III - neska koxkorra...

Atsoa (sorgiña)...

Emakume bi...

I - emakumea

II - emakumea...

Bi mutil-gazte...

I - gaztea...

II - gaztea...

*

Basarri bat degu ikusleen eskubi aldea... Arrizko
eserleku bat izango du basarriko ormaren kontra...
Eta eserleku ortan eserita Miren... Seaskatxo bat
izango du alboan... Zapi bat josten ari da Miren...

Miren

(gozo-gozo kantari)

Aurtxo txikia negarrez dago,
ama emaiozu titia.

Aita gaiztoa tabernan dago,
pikaro jokalaria...

Aita jokuan, ama lanean.

Auxe da negargarria...

Eskerrak zuri, Edurtxo maite,
zu zaitut nere zoria...

Patxi agertuko da basarri-barrutik: ikusleen eskubi-
aldetik....

Patxi Ez zera benetan ariko Miren...? Ni ez naiz pikaro-jokalaria bat.. Eta
ez naiz ere oartzen, noiz sartu nintzan, azkenengoz, taberna
batean...

Miren

Ondo dakizu zuk, Patxi, ez naizela zuregatik ari... Kanta zaar
onek ola dio... baiña ez zuregatik, urrutietako bategatik baizik...

Ondo dakizu zuk, alproja jokalaria eta tabernazalea izan ba-ziñan,
ez ziñala, gaur, nere senarra izango...

Izan ere, ain da zoragarria gure Edurtxo... eta edozer zorakeri
esatera erazten nau...

Patxi

Nik ere pozik-asko abestuko nizuke zuri, Miren, baiña lotsatu egi-

ten naiz emen... Mendian ostera... Nere mendiko kantuak zure-
tzat eta Edurtxo-rentzat izaten dira...
Barkatu, Miren... Oso-gustora jarraituko nuke emen zuekin, baiña
deika ari zait nere mendiko lana... Agur, Miren...

Musu bat emango dio, eta ikusleen ezker-aldetik
izkutatuko da kantari...

Uso txuria esaizu,
nora joaten zera zu...?
Euskal-erri-ko portu guztiak
elurrez beteak dituzu...
Gaurko zure ostatu,
nere etxean ba-dezu...

Neska-koxkor talde bat agertuko da ikusleen ezker-
aldetik kantari eta dantzan...

Neska-kox Sorgin bat eta sorgin bi.
Sorgin danak amabi...
Zatarra dute aurpegi.
Ez bai-da bat on danik...

Sorgin bat eta sorgin bi.
Sudur-luze izaki...
Ortz bateko atso zorri,
alde azkar emendik...

Ez degu guk nai sorgiñik.
Ezta pizti gaiztorik.
Gugana betoz zerutik,
aingerutxoak betik...

Eta kantu eta dantza auek bukatzean Edurtxo-ren
seaskara urbilduko dira.

I neska-k Lo dago...!
Miren Lo dago, bai... Lo egin-bear izaten dute umetxoak aziko ba-
dira...

II neska-k Ederra da, bada, gure Edurtxo au...

Miren Besteak bezelakoxea... Umetxo guztiak izan oi bait-dira ede-
rrak... Alakoxeak izango ziñaten zuek ere...
Noiz ikasiko ote ditu nere Edurtxo onek zuen kanta eta dantza
eder oiek...
Kanta ezaiozute zer-edo-zer...

III neska-k Bai, Miren...?
Miren Zergatik ez...?
I neska-k Esnatu egingu degu bear-bada...!

Miren Ez dio ajolik... Lo darama egun oso-ta...
II neska-k Orduan...

Eta kantuan ekingo diote danak...

Danak Nere maitea lo-ta-lo.
Lo-giro ederra dago.
.Zuk orain, eta guk gero,
ekingo degu lo-ta-lo...

Egingo degu lo-ta-lo
zuk orain eta guk gero...
Amets gozotan lo-ta-lo
lotan, seaskan, Edurtxo...

Miren **Oso ederki!! Egoak zabaldu, eta egizute orain egan usoak beze-**
laxe... Zuenak bait-dituzute bazter guztiak... Zabaldu, bada, zuen
egoak, eta ibilli zaitezte, batetik-bestera egan eta kantari, osoak
oi duten bezela.

Noiz ikusiko ote det nik, Edurtxo, kantari eta dantzan, zuek orain
zabiltzaten bezela...

I neska-k Ikusiko dezu, bai, Miren... Ez izan orren kezkarik... Agur, Miren,
eta biar arte... Egan goaz uso-zuriak...

Miren Ala zerate, bai... Agur, eta biar arte...

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira...
Ekaitz-aurrean izan oi dan trumoi antzeko bat en-
tzungo da...

Trumoi...? Ezin, ordea!! Zeru osoan ez da odei bat agiri... eta
trumoi...? Eta ala ere, ezin esango det trumoirik ez danik izan...
Siñiskerietan siñistuko ba-nu, señale txartzat artuko nuke trumoi
au... Baiña ez nadin orain gauza oietan pentsatzen asi... Trumoi
bat ez da beste munduko gauza... Eta udako egunik beroenetan
izan oi dira, askotan, trumoirik aundienak...

Eta ikusleen ezker-aldetik Atso zaar eta zatar bat
agertuko da. Zapi beltz batez estalia dakar burua,
eta belbetzak dira ere bere jantzi guztiak... Sorgiña
bait-da Atso zaar eta zatar au...

Atsoa Arratsalde on, Miren.

Miren Nundik ezagutzen nauzu...?

Atsoa Aspalditik, Miren... aspalditik...

Miren Ni ez naiz, bada, zurekin oroitzen...

Atsoa Ez da arritzekoa! Aspaldi auetan ez bait-naiz inguru auetan ibilli...
Alabear batek ekarri nau gaur onera...

Miren Eta zerbait nai al-zenduke nigandik...?

Atsoa Txorakeri bat, Miren... txorakeri bat... Ba-dakit zurekin txoraturik
dagoan gizon zintzo bat, dezula zure senarra... Ba-dakit ere, ume
eder baten jabe zeratela biok, eta zorion osoan bizi zeratela,

gaurkoz, zure senarra eta zu... Ezin bada nik, merezi duan ezer, zuri eskeiñi... Ala ere, eta nere gazte-denboran orraztaille onenetakoa izan nintzanez gero, zure buru ori orraztea, izango litzake neretzako pozkariorik aundiena gaúr... Ez uste izan gezurretan ari naizenik, ez... Ikus urrezko orrazi au.

Eta urrezko orrazi bat erakutziko dio.

Saritzat eman zidaten orraztailleak izan genduan txapelketa batean... Eta orregaitik nai izaten det, noizian-bein, orrazi onekin bateren-bat orraztu. Nere kapritxo bat besterik ez da, Miren...

Miren Ain narrasa al-nago, bada...?

Atsoa Ez, Miren, ez!! Ez da orregaitik... Esan dizut leen ere: nere kapritxo bat besterik ez da au. Aspaldi ez dedala iñorkin urrezko orrazi au erabilli, eta zurekin erabiltzea pentsatu det gaur. Barkatu, Miren... Ez nai asarratuko, nai-izaten ez ba-dezu ere... Orrelako orrazketa batek, nere gazte-garai eder ura dakarkit burura... Eta...

Miren Orregaitik bakarrik baldin ba-da...? tira, orraztu nazazu... baiña ezingo det iñora joan, umea emen bakar-bakarrik utzita...

Atsoa Ez dezu emendik mogitu-bearrik... Bertan orraztuko zaitut... Eta etxean ba-lego, etorri dedilla zure senarra ere, nere orrazketa au ikusi dezan...

Miren Mendian dago nere senarra... Eta orrazketa ori emen egitekotan, asi zaitez leenbaitleen, mesedez...

Atsoa Ementxe bai, Miren... Eta zuk uste baño leenago bukatuko degu dana...

Eta Miren orrazten asiko da.

Oso illi ederra dezu, Miren... Gustagarri da zure buru ontan lan egitea... Iru edo lau aldiz orrazia pasa, eta zoragarria geldituko da zure burua... Bai, Miren, bai...

"Bai, Miren, bai" esatean, buruan zerbait sartzen dion kiñua egingo du. Miren-ek orduan...

Miren Aiii!!

Atsoa Ez da ezer, Miren. Ori pasa da... Zoaz orain etxera, eta ikusi eza-zu, ixpilluan, nolako buru ederra utzi dizudan...

Eta "automata" bat bezelaxe jeikiko da Miren, eta etxe-burruan izkutatuko da...

Algara egingo du Atsoa-k.

Orrenak egin du!! Eta ni izango naiz, gaur-gero, Patxi-ren emaztea eta Edurtxo-ren ama...!! Sorgiñik ez!! Sorgiñik ez!! Kantari ari zan, oraintxe emen, neska-koxkor talde bat... Ja... ja... ja...!! eta ona ni emen, bertako etxeakoandre egiña!! Zergatik ez det, bada, nik ere kantatu bear...?

Eta kantatu ekingo dio...

Gaurtikan zure ama ni nauzu
zorigaiztoko Edurtxo...
Egingo zaitut sorgin guztien
erregiña betirako...

Sorgin bat eta sorgin bi.
Sorgin danak amabi...
Sorgin guztien erregiñ
Edurtxo izan dedin...

Eta alaxe izango da. Ni arduratuko bait-naiz orrekin... Izan ere,
sorgin batek ezin dezake il, ondorengo asko bere ondoren utzi
gabe... Eta Edurtxo izango da, nik utziko dedan ondorengo jato-
rrena...

Sorgin bat eta sorgin bi.
Sorgin danak amabi...
Sorgin guztien erregiñ
Edurtxo izan dedin...

Eta bi emakumezko agertuko dira ikusleen ezker-
aldetik... eta arri-arri eginda geldituko dira Atsoa
ikustean...

I emak	Ikusten al-den ori...?
II emak	Ikusiko ez diñat ba...?
I emak	Umezai bat artu bear, eta ori artuko ziñan ba, Miren-ek? Ez ote zegonan ba, emen inguruan, ori baño itxura obekoagorik...?
II emak	Zatarra den benetan, eta itxuragabea. Sorgiña zirudin... Eta sorgi- ñik ez dala esango diña gero...
I emak	Zergatik ez zenagu berari galdetzen...?
II emak	Goazen...

Eta Atsoa-rengana urbilduko dira.

1 emak	Arratsalde on! Zu artu al-zaitue Edurtxo-ren umezai...?
Atsoa	Ni Edurtxo-ren umezai? Oso oker zaudete...! Ni ez naiz Edurtxo- ren umezaia, ni Miren naiz, Edurtxo-ren ama... Ez al-nauzute, bada, ezagutzen... Miren naiz ni, Patxi-ren emaztea...
II emak	Ezin ordea... Guk oso-ondo ezagutzen degu Miren, eta zuk ezin dezakezu Miren izan... Zu baño gazteagoa da Miren, eta zu baño...
Atsoa	ederragoa, esan nai al-dezu...?
II emak	Bai...
Atsoa	Ala diozute zuek! Baiña ni Miren naiz, Patxi-ren emaztea eta Edurtxo-ren ama...
I emak	Barkatu, Miren...! Baiña nik ezin sinistu diñat Miren aizenela i. Oa

etxera, eta ikusi zan ire aurpegi ori ixpillu batean, eta orduan esango digun Miren alzan ala ez...

Eta Edurtxo seaskan utzi, eta etxe-barrura sartuko da Atsoa...

Laister agertuko da berriro intzirika eta aieneka...

Atsoa Madarikatua!! Zer gertatu zait neri...? Patxi-berak ere ez nau eza-gutuko... Nere zaar-itxura au ikusi, eta ezin sinistuko du Miren naizenik... Zatarra ikusiko nau Edurtxo-k ere, eta ez du nere al-tzoan egon nai izango... Baiña nork egin dit neri au...?

II emak Barkatu, Miren... Baiña ez induen, bada, sorgiñen batek begiz joko...?

Atsoa Nik ez zekiñat sorgiñik danik ala ez...! Baiña nere itxura au ikuste-an, ezin esango diñat, ez danik... Sorgin baten lana den au, bai... Eta nola agertu bear diñat nik gaur, itxura onetan, Patxi-ren au-rean...

Eta negarrez eta aieneka asiko da berriro Atsoa...

"Aitaren" egiñaz, izkutatuko dira bi emakumeak ikas-leen ezker-aldetik.

Auek izkutatzean erabat aldatuko zaio aurpegia Atzoa-ri...

(irriparrez) Auek atzipetu ditudan bezelaxe, Patxi ere atzipetuko ba-nu...

Laister zabalduko dute auek, erri osoan, neri gertatua... Izan ere, oso-osorik sinistu didate, Miren naizela ni... Patxi-k ordea... Sinis-tuko ote du Patxi-k, nere itxura au ikusita, Miren naizenik ni?

Ona da Patxi: biotz oneko gizona, eta bere emaztea benetan maite duan gizona... alakoxea dalako, biotzean joko dute, bear bada, nere gezurrezko negarrak eta aienekak... Aleginduko naiz ni, nere aldetik, aren erruki ori lortzen... Eta mirariak egin oi ditu errukiak... Eta ba-det orregatik, Patxi ere, atzipetuko dedan itxa-ropena...

Arratsaldea ere aurrera dijoa, eta sartu ditzadan, barrura, Edurtxo eta bere seaska...

Eta etxe-barruan izkutatuko da. Berarekin eramango ditu ere, Edurtxo eta seaska...

Patxi agertuko da ikusleen ezker-aldetik.

Miren ez dagola bere zai etxe-atarian, konturatzean, onela ekingo dio.

Patxi Arrigarria! Onelako eguraldi ona, eta Miren, Edurtxo-az, nere zai ez...? Arrigarria benetan... Eta onelako eguraldi batekin... Arritze-koa da, bai...

Kontu eder bat nekarkion gaur gaiñera... Orain artean ez det nik, gure mendi ontan, usorik ikusi... Eta gaur, bai...!!

Gaurko arratsalde ezker, uso-zuri bat dabil beti, nere alboan,

egaka... Eta ez da nere ondotik urrutiratzen... Oneraño etorri da, orain ere, nerekin... Uso orde, emakume bat ba'litz, ez dakit zer pentsatuko nuken...

Nun ote da, gaur, Miren? (Deika) Nun zabiltz, Miren...? Etorria naiz!! Emen nauzu...

Eta negar-otsak eta "aienakak" entzungo dira etxe-barruan...

Zer gertatzen da gaur emen...?

Eta Atsoa agertuko da aieneka eta negarrez...

(Atsoa-ri begira) Baiña nor zaitut zu? Zer egiten dezu zuk, emen, nere etxean, negarrez eta aieneka...? Nun da Miren? Nun Edurtxo?

Atsoa (Negarrez) Miren nauzu ni, Patxi, eta bere seaskan dezu Edurtxo...

Patxi Zu ez zera Miren... Esan zaidazu, arren, nor zeran, astakeri bat egin ez dezadan zurekin...

Atsoa Bai, Patxi, bai... Miren nauzu... Nik ez dakit zer gertatu dan nigan, baiña arratsaldea ezkeron nago itxura ontan... Sorginkeri bat izango da bear-bada: sorgin batek joko ninduan begiz, bear-bada... Niz ez dakit, Patxi, zer gertatu zaidan,... Baiña nere aurpegi au ixpilluan ikustean... Eskarrak Edurtxo...

Patxi Zer gertatu zaio Edurtxo-ri...?

Atsoa Edurtxo-ri ezer ez!! Leen bezein ederra dago ura... Ni berriz... Egia esango dizut, Patxi: zuri naigabe au ez ematearren, emendik anka-egiteko gogoia ere izan det: zuk sekula jakingo ez zenduan leku batera: eta an nere burua betirako izkutatu... Baiña ez det, zu agurtu-gabe, ori egiteko biotzik izan... Orain bada, eta zuk ala nai ba-dezu, betirako izkutatuko naiz etxe ontatik, eta Edurtxo-k emango dizu emendik-aurrera, nik orain-arte eman dizudan maitasuna...

Patxi Ez, Miren... ez det zu joaterik nai... Leengo itxura galdu ba-dezu ere, zu zera nik betirako nere emaztetzat artu nuan emakume ura. Eta ez zaitut utziko leengo itxura ura galdu dezulako... Zu zera, bestalde, Edurtxo nere alabaren ama. Eta ez du Edurtxo-k, zu baño ama oberik izango... Maitasuna ez da gorputzeko azalean gordetzen, biotzean baizik... Eta sorgin baten begi-jotzeak, ezin dezake biotz bat galdu... Aurrera, Miren. Zu izan zera, eta izango zera, etxe ontako etxe-koandre: zu izan zera, eta izango zera nere emazte maite-maitea: eta zu izan zera, eta izango zera, gure Edurtxo onen ama bakarra... Aurrera, bada...

Eta etxe-barruan izkutatuko dira biak...

Gaua da... eta illundu egingo dira iruditegiko argi guztiak...

"Illunabarra" abestia entzungo da urrutian... Eta abestiak iraungo duan arte, iraungo du gauak ere...

Abestia ||| unabarra...
Eguzkia asten da
jetxitzen, jetxitzen,
diztiratze ederra
zaiola gutxitzen,
diamantezko pritzak
zaizkiola galtzen...
Urrezko bola baten
itxura du artzen,
eta geldi-geldikan
itxaspean sartzen...

Abestia bukatzean piztuko dira berriro argiak, eta
etxetik agertuko dira Patxi eta Atsoa...

Patxi Arrigarria da bai, Miren... Ortxe egongo da, orain ere, nere zai,
dalako uso-zuri ori... Eta nerekin etorriko da mendira... Eta nere
inguruan izango det egun osoan... Eta ni batera joaten ba-naiz,
ara joango da bera ere, eta berdin egingo du beste iñora joaten
ba-naiz ere... Ez dit begirik kentzen... Nerekin txoratu dagoala
esango nuke...

Eta ba-da uso-zuri orren jokabidean, beste arritzeko bat ere: zuri
okerra gertatu zitzaizun egunetik, asi zirala gauza guzti auek ger-
tatzen: sorgin orrek zu begin-jo zinduan egunetik, alegia.

Ez al-da guzti-au arrigarria, Miren...?

Atsoa Bai, arrigarria iruditzen zait, eta zuretzako aspergarria izan bear
duala, Patxi.

Patxi Aspergarria...? Zergatik izan bear du aspergarria neretzako,
Miren?

Atsoa Ez dakit ba! Baiña egun osoan, zure ondoan ibiltze ori ere...

Patxi Aspergarria ez, Miren. Alderantziz esango nuke nik: oso pozgarri
zaidala... Zuk ba-dakizu, lagun nai izaten ditudala nik gauza guz-
tiak, eta ez etsai... Eta begientzako ere, oso pozgarri da beti,
uso-zuri eder bat ikustea...

Atsoa Neri ez zait, bada, uso-zuri orren jokabidea gustatzen...

Patxi Zergatik ez, Miren?

Atsoa Zuk ondo dakizu, Patxi, oso espatxuak gerala emakumeak, eta
gurea degun gizona, guretzako nai degula oso-osorik, eta ez
beste iñonentzat, naiz emakumea izan edo usoa izan au... Artu
ezazu, bada, eskupea eta il-ezazu uso-zuri ori... Eta orduan
galduko dira nere espatxuak...

Patxi Miren!!

Atsoa Zer?

Patxi Sorgin orrek gorputza ezik, zure biotza ere gaiztatu al-du...?

Atsoa Zergatik diozu ori, Patxi?

Patxi Zergatik esango dizut, bada? Ez dizut sekula orrelakorik entzun...

Min det, bai, zure gorputza orrela ikustea... baiña ez nuan uste,
Miren, biotza ere gaiztotu zizunik sorgin gaizto orrek.

Nundik zuk, Miren, espatxu oiek?

Atsoa Arrazoi dezu, Patxi! Baiña ni onela ikusita, neregandik alde-egin-

go zenduan kezka izan det, Patxi... Eta kezka orretzek esan-erazi dit esan dizudan guztia...

Barkatu, arren, Patxi...

Patxi

Barkatua zaude, Miren. Eta esan didazunaren kezkarik ez izan, Miren... Oso-ondo ulertzen baitdet nik zure oraingo zona.

Agur, Miren, eta gero arte...

Eta musu bat emango dio Patxi-k.

Ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da Patxi...

Uso-zuri orren kontuak ez zaizkit betere gustazen... Kezkatan asia det barrua...

Zergatik ibilli bear du, uso-zuri orrek beti, Patxi-ren inguruan?

Zergatik lagundu bear dio, egunero, oneraño...?

Eta iru egun damazki ori egiten. Iru egun!! Nere esku ba-lego itto egingo nuke uso zuri ori: akabatu bein-betirako! Eta orduan sentituko nintzake lasai, eta ez egaka ari dan artean...

Eta etxe-barruan izkutatuko da.

Sasoiko bi mutil-gazte agertuko dira ikusleen ezker-aldetik.

I mutil Arrigarria dek neri gertatzen ari zaidana: ik ba-dakit, ez naizela ni sekula abeslari izan: ez diat sekula bertsoetako ere iñungo griñarik izan... Eta onera sartu naizenetik, ezin kendu zituat burutik Iparragirre-n bertso batzuek...

II mutil Ori besterik ez ba-dek, ez daukak zergatik estutu, mutil! Ez dek, emen-inguruan, iñor agiri, eta gaizki kantatzen ba-dituk ere, ez dik iñork parrik egingo... Ni-neroni ere ez nauk orrelako kantore ona-ta...

Kanta itzak, eta kitto!!

I mutil Lagundu iak ik... Ik ere jakingo dituk Iparragirre-n "Zibillak esan naute" bertsoak eta...

II mutil Ba-zekizkiat, bai...

I mutil Ortaz...

II mutil Ekin...

I mutil Zibillak esan naute

biziro egoki

tolosa-n bear dala

gauza au erabaki...

Biak bat Giltzapean sartu naute

poliki-poliki,

negar egingo luke

nere amak ba leki...

Biak bat Giltzapean sartu naute

poliki-poliki

negar egingo luke

nere amak ba leki...

II mutil Ase al-dek ire gogo ori...?

I mutil Ase diat, bai...

II mutil Goazemak ortaz kale-aldera, an egongo bait-dituk gure lagunak gure zai-ta...

Eta "Giltzapean sartu naute" aokatuz izkutatuko dira bi gazteak ikusleen ezker-aldeetik... Patxi agertuko da gero...

Patxi (Aurpegi illun, eta deika) Miren! Zatoz leenbaitleen atarira...

Eta etxe-barrutik agertuko da Atsoa.

Atsoa Zer nai zenduke, Patxi...?

Patxi Ezer bereizirik ez!! Zera esan nai nizuke babar-bakarrik: galdu dala, betirako, lagun nuan uso-zuda.

Atsoa Pozten naiz, Patxi...

Patxi Eta ez eskopetaz il-dedalako, ez... Askoz-ere errezagoa izan da aren desagertzea...

Jarri zaiz aulkian, eta entzun zaidazu arretaz.

Eta atariko jarlekuan eseriko da Atsoa.

Neri begira zegoan, arbola-adar batean, gure uso-zuri ori... Eta ez zait beste gauzarik burutu, nere eskua luzatzea baño... Eta ori egin diodanean, egaka etorri zait eskura...

Loxinkak egiten asi natzaio, eta gogortasun bat nabarmendu det bere buruan... Lumatxoak banatu, eta orratz-buru beltz bat aurkitu diot buruan sartua...

Anka-egin nai luke Atsoa-k, Patxi-k ordea ez dio lagatzen...

Eta entzun au ondo, sorgin gaizto: orratz-buru beltza burutik aterra diodanean, Miren biurtu zait uso-zuria: Edurtxo-ren ama eta nere emazte maitea... Zuk sartu bait-zenion bere buruan, uso-zuri biurtuko zuan, orratz-buru-beltza... Eta orregatik nai zenduan zuk, nik il-erazi nezala nere eskupetaz uso-zuri ori: Miren ilko baitnuan, uso-zuria iltzean...

Errez atzipetu ninduzun... Eta orregatik gorde izan zaitut etxean, Miren ziñelako... Baiña zure gezur orri ere, etorri zaio bere azkena..

Orra-or, nun datozen Ertzaiñak zure billa... Giltzapean eukiko zaituen artean, ezin egingo diozu, beintzat, iñori kalte... Zure sorgin-keri gaizto oiek ez zuten beste azkenik merezi...

Eta bi ertzain agertuko dira ikusleen ezker-aldeetik, eta bien-erdian eramango dute Atsoa...

Eta urruti batean entzungo da berriro, leengo bi gazteen abotsa.

KUKULLA'RA, GOGO ETA BIOTZEZ

Euskerazaintza'n buru ta belarri gabiltzanok, ez gera, egia esan, ibiltari.
Gure gureak diran batzarrak eta kitto.
Baña jakin miñak ez dauka mugarik, ez eta aizetu bearrak ostoporik.
Aurten Errioxa aldera ibillaldi bat egiteko asmoa agertu zuan norbaitek, ez
ain zuzen ardauek dastatzera... eta asmoa egi biurtu zan.
Bereala zabaldu zan deia, asmo eta elburua agertuaz.

ERRIOXARA IBILLALDIA EUSKERAZAINTZA'REKIN Iraila'ren 21'tian

OARRA

Bi elburu dauzka ibillaldi onek:

BAT Gure Kristau sinismenaren aztarna zarrak ezagutu.

San Millan sinismenaren aldetik iturria izan da Euskalerrian.

Ez dago beste etxerik orrelako itzalik daukenik.

BI Euskeraren iturriak ikusi Errioxa'n.

Euskeraz idatzitako aurreneko itzak San Millan'en egiñak daude (992)

Euskerazaintza delako, erri euskeraren akademiak zuzentzen du ibillaldi au.

NUNDIK ATERAKO DA?

Donosti'ko San Inazio Parrokiaren atzekaldetik, Zabaleta kaletik.

IBILLALDIA

8:30 AM **Atera**

11:30 AM San Millan'en meza (Yuso-beko Eliza)

12:15 PM San Millan ikusi (beko aldea).

1:15 PM San Millan goikoa ikusi.

**Bukaeran Naparroa'ko errege zarren alde erresponsoa egin,
Suson goien.**

(Goikoa, Santxo III Andiak berritua. Bekoa, Erromanikoa,
Garzia IV, XI gizaldian).

2:00 PM **Senidearteko bazkaria: BADARAN "Comercio jatetxean"**
(Iursagarrak txoritxuarekin eta arkumearen saieskiak erreta).
BERSOFARIEKIN.

4:00 PM **Kañas ikusi ta oroigarriak erosi.**

(Bizkaiko Jaunaren alabak daukan arpegiaren edertasuna
ezagutu).

Orrela 70 lagun batu giñan Kukulla eta inguruak ikusiaz, euskeraren aztar-
nak gogoratzen.

Egun zoragarria. Giro beroa lagunartean. Giro atsegiña bidean. Asmo eta
jakitez euskera elburu gendula. Aidean geratu da ezaugarria: datorren urterako
beste baten eskabidea.

Nabari da erri euskerak aizetu bearra daukala.

Aidean dabil gura izarbel (satelitea) urteetako deia gogoratzen:

Euskara, jalgi adi plazara

* * * * *

GLOSA EMILIANENSE

Cono abruitot'to Tc fl e tzO zAⁱ n
(uc,io Cttt'isto.^^^cno5u^Ltot
↑.,al bt+tno e;Enct hattor`e:
↓₁4zulb..cnotiEnCrdet nltuco nt
cono Putee. c-no Liprtfiu ante.
Enof gceculo f be' l.o gtCeLd'
fāCanof bc..y onlcup`te tal #•c>zbrcrc
fet`e !cti aE',iñtte efz, ftt> fac6
toso Ce5atttc...-

(tfO_D I aNsk

C_Z Zinu

Ori "Glosa Emilianense'an" azpian euzkeraz idatzia azaltzen dana da.

Bi itz. Bat izen berezkoa, ta bestea aditza, baña izena bezela erabilia dago-
ena, idatziari esan naia emoten diotenak daude. Beste itz denak, lau geiago,
bi itz au enengo oien esan naia, bai dala edo ez dala esaten dute:

Orela daude osatuak bi itzak, idatzian oña ak diranak:

IIOKI: Esan bear degu asteko, nola Z izkia, zazpiga en aozkoa dala euzke-
ran, ba lagundun Z ibiltzen da IZ itzakin, uran esan naiatik dato enian. Orela;
izotz, ize di, izeta... Baña argiaren esan naia dunian; iar, izena, Eguikia'n
bezela, zazpiga en aozkoa ibilli bear. Bere abotza zzz españietara oso osorik
botata agiten da.

IZIOKI: Orrela dago osatua:

Izadian lagia

iz Izadian lagia, ta berak erabiltzen dun kemena edo azku.

izi Lagia, kemena ta gizonen adimena.

izio Lagia, kemena ta gizonen adimenan egoera.

izioki IEiok artzen dun izaera lekaideen bizitzan.

IZIO IZI'n dagoela lanian, edo bere iakintazunak ondorioak iakiten.

IZIOKI IZIO'n izatendan adimena edo iakintazunak artzen dun izaera
lekaiden bizitzan azaltzen diran eginkeraren bitartez.

Ze irudi edo emaitzak, IIO'n iakintazunak, lekaiden bizitzan azal-
tzen diranak, ta IIO'tik iasoak diranak. Emen bere eginkera ikus-

gañak ta gogogañak, bai ere bere ga bitazunan emaitzak izaten dira.
 Bigafen itza, AIUTU, aditza da, baña izena bezela erabilia dago.
 AIUTU Itz au, gal duna da, ta au kakoa I/IOKI itzakin, ba bera, gal gabea ta gogozkoa noski ororo.
 AI Bi aozko auek itz e oan, gal gabeak oro.
 O ela dira ga; dunak: aitza, aita, aintza, aiuto...
 Ta gogozkoak: leio, jainko, ian, iaun, a;ntzi, iakin.
 AITZA: O ela dago osatua. Ugari (tz) izadiko gauz (i) baiezko ekintzailea izadikoa, aitza dala. Aitza, lu aren oñaña dala esaten du.
 Aita: Sendian oñaña dala esaten du.
 AIUTU: Gauz gai dun (u) bizitzan oñaña (al) dala esaten du.
 Lekaide aiek, ez dutela laguntza neiko, edo bere bizi era ez dala egokia edo neikua.
 Ez dituztela bea ezko gauz, bere bizitza gal dunan ondo izateko.
 AIUTU'k dauka gai dun esan naia.
 IIOKI'k, gogozkoa.
 Sei itz oien esan naia, o ela ikusten ditugu.

I)(I OKI DUGU - ARGITAZUNA DEGU

GUEK AIUTU - GUEK LAGUNTZA

EZ DUGU - EZ DEGU

IMANOL MUGIKA ALBERDI

KUKULLA KOGOLLAKO SAN MILLAN

I

Antxiñateko KUKULLA mendi
 gaur, San Millan de Kogolla
 gizonkerjak aldatu eban
 euskal lurra erderara;
 inguru onek daukan ospea
 gizon batek emon eutsan
 berari esker, gaur, emen gagoz
 ospatzen anaitasuna.

III

Erreka ta ibaiz inguru onek
 Euzkadi bera dirudi
 antxiñateko euzko sustrajak
 galdu bagarik maiteki;
 len izan zana ixilik dauka
 ondo gordeta zintzoki
 bere izatea ezin ukatu
 sortzetiko bizitzari.

II

Seigarren mende aldi artako
 San Millan gizon santua
 euskalduna zan euskeraz ondo
 itz egiten ekiana;
 ezpairik bage erri zalea
 santuei dagokiena
 Jainkoarentzat eukan dan dana
 baita be erri laztana.

IV

Ezaugarriak ederrak daukaz
 zer izan zan lenagoan
 euzko urratzak agiri ditu
 girorik ederrenean;
 urrezko bitxi zorionsu lez
 egazkor doaz aidean
 kristautasuna t'euzko izkuntza
 San Millanen biotzean.

V

San Millan onek alde danetik
euzko usaña dario
sendi ta lagun alkar izketan
aita baten irudiko;
mendiak eder euzko tankeraz
zar, zabal, luze ta sendo
lurrean gogor sustraiturikan
gora adi zeruraino.

VI

Buruz ta izkuntzaz ondo ebiltzan
euskeraren alorrean
euren arima euskalduna zan
bizitza arazoetan;
Aitorren itza eben miñean
baita biotz barrenean
arbaso mendi ta eleizan
euzkotarren izenean.

VII

Gure izkuntzaren edergarritzat
gogora daigun San Millan
gure itzaren lenen izpiak
ementxe goratu ziran;
euzko gizonak idatzitako
ezaugarri onenean
euskal idatzi majtagarriak
lur ontan agertu ziran.

VIII

San Millaneko toki onetan
Komentu bi dagoz tinko
bata bekoa bestea goiko
alkartuz soragarriro;
goikoan dagoz bost koba zulo
bitxiak barru ta kanpo
arbasoentzat bizi tokiak
izan zirenak luzaro.

IX

Errien sena itzak agertzen
erri ta mendi artean
izkuntz bikaiñak erri bikaiña
mendi ta solo tartean;
izen ederrak ugari dira
San Millango lurraldean
euskal jatorren bizilekua
leial agertzen lur ontan.

X

Izen ta abizen agiri dira
San Millanen babesean
Bitxi bitxika urre antzera
euren edertasunean;
erri oneri emon nai dautse
goratasuna lurrean
arbaso aren odol gorriaz
bedeinkaturik lorean.

XI

Gaurko San Millan bazter ederra
antxiñateko KUKULLA
zur eta gogoz sendo ebillan
Jaungoikoari begira;
sinjsmen argiz indartsua zan
zeruaren esanera
danez goitikan egiz nai eben
sinismena zabaltzea.

XII

Bizkai Gipuzku eta Araban
jarri zituen sustraiak
ainbat konbentu agertu ziran
San Millandarrak jarriak;
egi-egitan esan giñake
KUKULLATARREN argiak
izan zirela euskaldunentzat
zerutar itur bidiak.

AITA SANTI ONAINDIA

"Euskerazaintza"ren zenbaki au kaleratzeko dala, Larrea'ko Aita karmeldarren inguruan, konbenturako bidea asi eta bereala aurkitzen dan iturri baten aurrekaldean, Aita Santi Onaindia'ren irudi eder bat ipiniaz, bere nortasun eta duintasuna gaurkoen gomuta eta gerokoan ezaugarri agertzeko asmoa noiz beteko dago.

EUSKERAZALEAK eta EUSKERAZAINTZA dira orren ardura artuta daukenak.

Eurok dira Bizkai'ko Foru Aldundiaren eta Zornotza-Amorebieta'ko Udalaren laguntzaz, omenaldi ori gertu eta aurrera daroenak, Aita Santi ospetsuak bere bizi luzearen urterik geienak eta bere lanik oparoenak burutu eta bete zitun inguruan euskal alorrean diarduenen eredu geratu dedin.

Esan bear onetan Larrea'ko Karmeldarrak atsegin biziz artu eta jakin ebela Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren asmoa eta euren aldetik ortarako bear zan lur zatia eskeiniaz.

Urrengo zenbakian agertuko doguz oroitarri orren bedeinkapen eta eskintza jaiko goraberak.

Gaur esan geinkena da bere antz-irudia euskal ertilari ezagun eta ospetsu dan Migel Angel Lertxundi ertilari jatorrak bustiñean itxuratu eta brontzean lortua dala.

Jaia, urte onetako Urrilla'ren 19'an ospatuko da, euskaltzale eta euskalari jatorrak bertan batuz.

Asierako 11 1/2 tan Eleiz ospakizun bat egingo da konbentuko eleizan, bertan olerki irakurte eta "AMES-KIMU"ren abestiak entzun ondoren, Iturri ondora aldatu, irudia bedeinkatu, omenezko aureskua eskeini eta betirako agirian ipiniaz.

Orrela Amorato erritxoan jaio ba zan ere, bere lantoki eta etxe izan zitun inguru onetan jaso al izango ditu euskal biotzen agur, otoi eta goresmenik beroenak.

AITA SANTI ONAINDIA'ri IRUDIA TA OMENALDIA

(Amorebieta'n, 1996'ko urtillaren 19'an)

EGITARAUA

11 1/2'etan: Eleiz-ospakizuna.

- Bibli-abestia: AMES-KIMU abes batzak (Zuzendaria: Aita Eliseo Lejarza, Kalmerdarra)

- Aita Santi'ren olerki baten iragarpena (Itxaso Ozerin gaztea iragarle)

12'etan: Larra'ko Iturri-ondoan, irudiaren aurrean:

- Irudiaren bedeinkapena: (Aita Andoni Olea, Karmeldarrak)
- Irudiaren aurkezpena: Martin Olazar, EUSKERAZAINTZAREN Lendakariak)
- Aureskua
- Txistua
- Bertsoak
- Agur Jaunak

Ordu bietan: Bazkaria

OÑATIBIA'TAR MANU'K JASOTAKO ESALDI JATORRAK

- Ori etxean ez EDUKITZEKO OBEA DA!

- Illeta garai osoan ÑEGAR BATEAN ÑEGON ZAN.

- EKIERAN (ume-egin-berritan) aul egon oi da.

- ETXEZ ALDATU naiz. * * *

- Lau egunez AURRETIK jakin nuan. * * *

- BEGI-GOSE GALANTA II! * * *

- TRENEZ ETORRI NAIZ. * * *

- Txala au ZIURRA DA (igarra). * * *

- ARÑAS-JAIKI (arnas-kolpea) ori, berria du.

Ñeke aundiko tramankulu baten aurrean:

- LAÑAZ GAIN, garestia da. * * *

- LEENAZ GAIN; ORAIN AU? * * *

- Onezkero lanak EGIN -XAMARTUAK izango dituzute!

- Eman didan ESTUTUAREKIN, BELTZ-MORIA atera zait.

- Eguna joan eta eguna etorri, ez du atertzen. AU DA EGIÑ-BERRA, AU!
Au da botatzea! * * *

- BARRU-GIRO dago! ETXE-GIRO dago! * * *

- NEKEZEÑEAN ERE etzi deituko dizut. * * *

- Zerbait esan ezkerro, BEREAK GEYAGO izango lituzke. * * *

- Aurten bi neguek ALKAR-JOKO DUTEN BELDUR NAUK. * * *

- MAYATZEKO EURI -ASEA, urte guzirako belarra. * * *

Gaxo dagon batek:

OÑATI BIA'TAR MANU'K JASOTAKO ESALDI JATORRAK

– JATEZ JAN EGIN DIAT, baña gogo ^xg^xundirik gabe.

– Iñor GUTXIK BEZELAKO LANA EGIN DU.

– IÑOR GUTXI BEZELAKOA DA. * * *

– Esaldi jatorrak, IÑUN GUTXI BEZELA, ^xOyartzun'en esaten dira.

Jauntxo batek bere amona etxetik AURREAN bidali zuanean, amonak ala esan zion (jauntxoari).

– Illi ta biarmonian, zeruko atera zoazen DENBUN, gure Jainkoak beste orrenbeste egingo al dizu!

* * *

Jauntxo bati eskabide bat egin eta erantzun onik eman etzionean:

– Zuk, gizon aundia zerala usteko dezu, baña ez; zu, asko ikusi ta gutxi ikasi OYETAKOA zera.

(AURREAN atera zuan).

* * *

– Berak muntatu digu EUN-DA-BERE! ALDIKO salakuntza!

– Suketak, EUÑTALAKO kalteak egin ditu!

– NOLA EDO ALA eskuratu det. * * *

– ORAINDIK ERE itxaropen guztiak ^xgaldu gabe gaude.

– Elurrak lurra une batean ZURITU ZUAÑ, baña BEREAN LURMENDU ERE.

– ASPALDI ONTAN ERIXKO zebillen eta ILL EGIN DA.

– BEREUNTEKO gauzen feria izan da; ^xgaznak, edariak, e.a. erakusgai.

– BERO!

– Jendea keja zan, baña iya oraingoan ^xasetzen diran BEROZ.

– Sendagilleak zerbait egin al dizu?

– EZER GUTXI; datorren astean BERRIZ JOATEKO esan dit.

Ots aundi bat entzun ondoren:

– Zer zan ori?

Etxeko mutilla berealaxe agertutakoan.

– ZER OTE ZAN ETA 1 AL (TZAÑ? * * *